

EGINTZA ADMINISTRATIBOEN ERAGINKORTASUNA: JAKINARAZPENARI BURUZKO ZENBAIT OHAR

Miren Jasone Urkola Iriarte

SUMARIOA: I. Sarrera. II. Jakinarazpena. II.1. Egintza administratibo independentea. II.2. Jakinarazpenaren norainokoak. II.2.1. Nork, nori: elementu subjektiboak. II.2.1.1. Subjektu aktiboa. II.2.1.1.a. Agente igorlea. II.2.1.1 .b. Agente transmisorea. II.2.1.1.c. Agente jakinarazlea. II.2.1.2. Subjektu pasiboa. II.2.1.2.a. Helburukoa. II.2.1.2.b. Hartzaila. II.2.2. Nor (edo zer): elementu objektiboak. II.2.2.1. Jakinarazi beharreko egintza. II.2.2.2. Jakinarazpen-mezuaren edukia. II.2.2.2.a. Testu osoa. II.2.2.2.b. Bide administratiboaren amaiera. II.2.2.2.c. Helegite egokiak. II.2.2.2.d. Organoa. II.2.2.2.e. Epea. II.2.3. Noiz, non, nola: elementu zirkunstantzialak. II.2.3.1. Denbora. II.2.3.2. Lekua. II.2.3.3. Modua. II.3. Ondorioak. II.3.3. Jakinarazpenik eza. II.3.2. Jakinarazpen akasdua. III. Amaiera.

I. Sarrera

Egintza administratiboekiko baliozkotasun presuntzioa onartua da gure ordenamendu juridikoan (1), guztiok dakigunez, Administrazioak duen autotutela-pribilegioaren ondorio bezala (2). Hori dela eta, egintza horiek berehala eraginkorrak izan ohi dira (arau orokorra hau da, behintzat).

Zenbait suposamendutan eraginkortasuna atzeratua geratuko da, halere, eta baldintza gehigarriak bete behar dira eraginkortasun hori benetan gauzatu dadin. Egintzak ukitua gertatu denari haren berri ematea (jakinarazi edo argitaratuz) (3) baldintza hauen artean kokatuko da (4).

Esku artean dugun lege berri honen aurretiaz (5) sorturiko doktrinak nahiz jurisprudentziak eraginkortasun-baldintza hori interesdunaren berme moduan eratu izan dute (6).

(1)Gaur egun, onarpen hori lege 30/1992, azaroaren 26koan, 57.1 artikuluan, aurki dezakegu eta Auzitegi Konstituzionalak esana du, esan ere, konstituzio kontrakoa ez dela [Epai 66/1984, ekainaren 6koaren oinarri juridiko 2. eta 3.ean (BOE zk. 146, ekainaren 19koa)].

(2) Dena den, eta hau ere jakina da, presuntzioak (*iuris tantum* izaki) egintzaren baliozgabezia ebazpen irmo batek baieztatu bitartean jokatu du.

(3) Aipatu Legearen 57.2 artikuluan jasorik dugu hau.

(4) Ik. GARCÍA DE ENTERRIA, E. eta FERNANDEZ RODRÍGUEZ, T. R., *Curso de Derecho Administrativo*, Tomo I, Edit. Civitas, Madrid, 1993, 6. ediz., o. 553-559.

Auzitegi Gorenak bere 1990. irailaren 7ko Epaian (Ar. 7086) dioen bezala egintza administratiboaren jakinarazpena ez da haren baliozkotasunaren baldintza, are gutxiago bera izatearena, baizik eta interesdunaren aurreko eraginkortasunarena soilik, eta interesdun horrek, azkenik, ezagutuko duenean, egintzak bere efektu guztiak zabalduko ditu.

(5) Izan ere, 1889. urriaren 19ko Prozedura Administratiboaren Oinarri-Legeak (Espainian prozedura administratiboak izan duen lehen araupean orokorrak) zehazten baitzuen jada jakinarazpenek nolako edukin eta forma behar zituzten. Ondoren etorri zen 1958. uztailaren 17ko Prozedura Administratiboaren Legeak aurreko haren aurreikuspenak barneratu eta osatu besterik ez zuen egin (Ik. PARADA VÁZQUEZ, R., *Derecho administrativo*, Tomo I, Edit. Marcial Pons, Madrid, 5. edizioa, 1993, o 137).

(6) Ik. GARRIDO FALLA, F., eta FERNANDEZ PASTRANA, J. M., *Régimen jurídico y procedimiento de las Administraciones Públicas* (Un estudio de la ley 30/1992), Edit. Civitas, Madrid, 1993, o. 123..

licas (Un estudio de la ley 30/1992), Edit. Civitas, Madrid, 1993, o. 123..

Dena den, jarraitu aurretik, komenigarria dirudi, kontzeptu zehazpen azaleko batzuk egitea.

Berriematea beste biak baina kontzeptu zabalagotzat hartu ohi delarik, jakinarazpena eta argitalpena berriemate egintzak ditugu (7). Lehena, printzipioz, pertsona zehatz edo zehazgarri bati edo batzuei eginiko berriemate singularra izango da; bigarrena, berriz, pertsona multzo bati (edo pertsona zehatza baina egontoki ezezaguna duenari) zuzendurikoa (8).

Bestalde, beste hiru kontzeptu (zitazio, epaitze eta errekerimendu kontzeptuak, hain zuzen ere) jakinarazpenarengandik bereizi beharrak ditugu. Zitazioa (9) eta epaitzea zuzentzen zaizkion pertsonari, beroien bidez, leku zehatz batetan agertzeko deia egin ohi zaio. Bien arteko ezberdintasunak denborazko elementuetan datza: lehen kasuan data eta ordua ere zehaztuak geratuko dira, bigarrenean, berriz, data eta ordu konkretuak eman beharrean, epea emango zaio pertsona horri bere agerraldia egin dezan. Errekerimenduak, azkenik, zerbait egin, amore eman edo abstenitzera behartuko du pertsona. Hirurak beraiekin eraman ohi baitute jakinarazpena, jakinarazpen-egintzat hartu izan dira, baina zehatzak izateko, eta intimizazio-egintzak barneratzen dituztenez, hortik (eta ez beste inondik) eratorria da jakinarazi beharra (10).

Aurretiazko ñabardura hauek egin ondoren, ikus dezagun gaiaren araupena nola bideratu duen 1992.go legeak.

Jakinarazpena eta argitalpena Titulu V-aren (11) Kapitulu IIIean (12) kokaturiko 58-61 artikuluetan arautuak izan dira. Hasteko, beraz, eta 1958.go

(7) Ik. GONZÁLEZ NAVARRO, F., "Notificaciones, auxilio administrativo y entes locales", *Documentación administrativa*, zk. 133, 1970, o. 17, eta NUÑEZ RUIZ, M. J., *La notificación de los actos administrativos en el procedimiento común*, Edit. Montecorvo, 2. ediz., 1993, o. 63 eta h

(8) Ik. PARADA VÁZQUEZ, R., aip. ob., o. 136.

(9) Lege berriaren 40.2 artikuluan.

(10) NUÑEZ RUIZ, M. J., aip. ob., o. 66-68.

(11) "Xedapen eta egintza administratiboak".

(12) "Egintzen eraginkortasuna".

legearekin konparatuz gero, trataera bateratua eman zaiela suma dezakegu. Izan ere, azken aipatua dugun honetan, berriemate eta jakinarazpenak Titulu zerbaki berdindunaren (13) Kapitulu II-an (14) jasoak izan arren, argitalpena (lege berria gertatzen den moduan) egintza administratiboaren eraginkortasuna arautzean (zehazki aipatzeko, 46. artikuluan) ukitua izan baitzen. Zio Azalpenean ezertarako aipatu ez den irizpide bateraketa egoki honekin, lege berriak doktrinaren aspaldidanik onartua zen sistematika beretu besterik ez du egin.

Eta, Zio-Azalpena aipatu dugunez, gogoratu beharrekoa da gai honi buruzko berrikuntzak adieraztean dioena. Bertan ageri denez, ateak irekiak utzi zaizkie ohizkoak izan ez diren jakinarazpen-bideei, informazio-teknika berriak erabiliz arinagotu daitezten (guzti hori, jakina, beharrezkoak diren kautotasun-bermeek gutxiespenik jasan gabe), eta bizilekuari jakinarazpen lekuen artean zuen eskusibotasuna kendu zaio. Aurrerago gai hauek ukitu ahal izango ditugu. Oraingoan, azken baieztapen hori kolokan jarri dezaken egitate bat gogorarazi besterik ez: izan ere, 1958. go legeak bere 80.1 artikuluan jakinarazpenak egiteko aurreikuspena bizilekura zuzentzeaz gain, horretarako interesdunak espreski seinalaturiko lekuaren aukera ere aipatzen baitzen.

Beraz, eta azaletik nabaritu den eran, Zio-Azalpenean berrikuntzatza aldarrikatutiko orok ez du horrelako lerruna lortzeko haina lebarik. Badira, alderantziz, Azalpen horretan azpimarratu gabe geraturiko zenbait aldaketa. Araupen berria xehatuz goazen eran egiaztatzerik izango da guzti hau.

II. Jakinarazpena

Egintza administratiboa aurkatu ahal izateko epeak igaro daitezten aurrezpostu denez (15), jakinarazpenaren araupena betidanik oso hertsia izan da, arrazoi adjetibo hutsen eraginak galduarazi baitezake edozein eskubide material (guztiok dakigunez, jarduera administratiboak aurkatzeko epeak izugarri motzak izateari, prozeduran parte hartzeko letratu beharrik eza gehitu behar zaio).

Horrela, lehen begirada batetan izapide arrunt baten itxura besterik izan ez arren, egintzaren jakinarazpenak, lotura teoriko ugari edukitzeaz gain, Administrazioak eta administratuek egunero dituzten harremanetan bizirik dirau eta problemak sortu ohi ditu (16). Hori dela-eta, praktikan garrantzi handia hartzen du (17), jurisprudentzia ugari sorrarazten duen arazoa izaki.

II.1. Egintza administratibo independentea

(13) "Egintza administratiboak elaboratzeko prozedura".

(14) "Prozeduraren ordenazioa".

(15) Ik. Auzitegi Gorenaren 1986. azaroaren 14ko (Ar. 8081) eta 1992. abenduaren 11ko (Ar. 9854) Epaiak.

(16) GONZÁLEZ NAVARRO, F., aip. ob., o. 11-12.

(17) Trafiko-urrapenak direla eta izapideturiko espedienteetan, egintzen (batez ere denuntziaren) ja kinarazpena akasdu izana da, DORREGO DE CARLOS eta GUTIÉRREZ VICEN-ek gogorarazten duten moduan, murtzilo gehienetan alegatu ohi dena [Ik. "Disposiciones y actos administrativos", PENDAS GARCIA-k koordinaturiko Administraciones públicas y ciudadanos (*Estudio sistemático de la ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común*) obra kolektiboa, Barcelona, 1993, o. 4571-

Jakinarazpena Zuzenbidearen teoria orokorraren *kontzeptua* da. Zuzenbide Publiko nahiz Pribatuko adar ezberdinetan ezaguna izaki, ñabardura bereziak agertuko ditu adar horietariko bakoitzean (18).

Zuzenbide Administrazioan doktrinak kontzeptu (19) honen definizio ezberdinak eman ditu, baina bat aipatzekotan, eman nahi izan dion zehaztasuna kontutan edukirik, GONZÁLEZ NAVARRO-rena azpimarratuko genuke. Honen hitzetan, jakinarazpena zuzendaritza prozesaleko egintza bat izanik, bere bidez Administrazio Publikoak, pertsona fisiko edo juridiko bat ukitu duen egintza administratiboaren edukiaren berri emango baitio pertsona horri (zenbait kasutan, karga prozesal bat—horrela bada, zehaztua izan beharko duena— ezarriz), helburukoak (edo, horretarako legez subrogatu zaion hirugarren batek) benetan hartu duela espedienteen jasoak geratu beharko delarik (20).

1958.go Legearen araupena kontutan izanik emana izan bazen ere, gaur egun, eta orokorrean hartuta, balio dakiguken definizioa da. Dena den, ez da soberan geratuko zenbait ñabardura egitea.

Hasteko, egile honek "zuzendaritza prozesaleko egintza" espresioa erabiltzean, ordenazio-egintzen barruan kokatzen du, garaiko legeak bere arau penean aurreikusi moduan. Gaur egun, esana dugun lez, jakinarazpena prozedura administratiboaren ordenaziotik at eraendua geratu den arren, egileak ordenazioari eta ordenazio egintzei buruz garaturiko teoriak(21) erabat aplikagarri izaten darrai.

Bigarrena, eta egile berak garbi uzten badu ere, hemen argitu beharreko dirudiena: karga prozesala ezartzei buruz ari denean, kanporatuak geratu behar dute, edonola ere aurretik ezberdindu ditugun zitazio, epaitze eta errekerimenduak ezarri ditzaketenak. Esan bezala, hauetan jakinarazpena beharrezkoa izan arren, subjektu helburukoaren karga ezartzailea ez da jakinarazpen hori izango, baizik eta aurretiazko egintza.

(18) NUÑEZ RUIZ, M. J., aip. ob., o. 25.

(19) "Jakinarazpen" hitzak, Legeak erabiltzen duen eran, zenbait kasutan jarduera adierazten du, baina beste zenbaitetan jarduera horren euskarria den dokumentua. Horrelaxe gertatzen zen 1958.go legean ere.

(20) *Derecho Administrativo español*, Tomo II, Edit. Universidad de Navarra, Iruñea, 1988, o. 525 eta "Notificaciones...", aip. ob., o. 14.

(21) *Derecho...*, aip. ob., o. 526-528, eta "Notificaciones...", aip. ob., o. 1617.

Jakinarazpenaren *izaera juridikoa* helduz, gai honetan ez du doktrinak irizpide bateratua izan. Zenbaitek jakinarazi beharreko egintza administratiboaren osagaietariko bat zela uste izan duen bitartean (22), beste zenbaitek egintza administratibo independentetzat hartu izan du (23) eta hirugarren multzo batetan bi irizpideen erdi-parean geratu izan direnak daude (24).

Gaur egun, gehiengo osatzen dute doktrinan (25) eta jurisprudenzian (26) bigarren irizpidearen aldeko jarrera hartu dutenek.

Lege berriaren 58.1 artikuluko Administrazioari interesdunen eskubide edo interesak ukitzen dituzten ebazpen edo egintza administratiboak jakinarazteko ezartzen dion betebeharrak (27) berekin darama interesdun horrek jakinarazia izateko duen eskubidea. Eskubide hau, defentsa eskubidearen adierazpen delarik, Konstituzio Espainiarrak bere 24. artikuluan aldarrikatu duen tutela judicial eraginkorrerako eskubidearen eremuan kokatua geratuko da (28). Beraz, Administrazioak bere betebeharrak ez badu ordenamenduak eskatu bezala gauzatzen, eta benetan defentsa gabezia (29) sortzen bada, interesdunak anparoaren bidea zabaldua edukiko du beti ere azken bide erabilgarri moduan.

Gure objektuaren kontzeptua eta izaera juridikoa horrela finkaturik, araka ditzagan jakinarazpenaren inguruabarrak.

II.2. Jakinarazpenaren norainokoak

Jakinarazi aditzaren inguruan osaturiko perpaus orok izan ditzaken elementuak aztertuko ditugu atal honetan, lege berriak egintza administratibo independente horri eskatzen dizkion baldintzen berri izan asmoz. Beraz, eta beste hitz batzutan esateko, jakinarazpenaren elementu subjektibo, objektibo eta zirkunstantzialak aztertuko ditugu (adieraziriko ordena jarraituz) ondoko lerro hauetan.

II.2.1. Nork, nori: elementu subjektiboak

Honetaraino helduak garelarik, subjektu aktiboaren eta pasiboaren ezaugarriak gainbegira ditzagun.

Hasteko, subjektu aktiboa, hau da egintza administratiboa jakinarazi behar duena, beti Administrazioa izango dugu. Subjektu pasiboa, edo egintzaren berri hartu behar duena, berriz, edozein pertsona fisiko edo juridiko izango da.

(22) MARTIN-RETORTILLO GONZÁLEZ, C: "Notificación de la resolución administrativa", *Revista de Estudios de la Vida Local*, zk. 59, 1951, o. 686.

(23) GONZÁLEZ PÉREZ, J.: *El procedimiento administrativo*, Madrid, 1964, o. 431; ENTRENA CUESTA, R.: *Curso de Derecho Administrativo*, edit. Tecnos, 2. ediz, Madrid, 1966, o. 485; GARCÍA OVIEDO, C. eta MARTÍNEZ USEROS, E., *Derecho administrativo*, Tomo II, edit. EISA, 9. ediz, Madrid, 1968, o. 94; GONZÁLEZ NAVARRO, F., *Derecho...*, aip. ob. o. 527 eta "Notificaciones...", aip. ob., o. 16; COSCULLUELA MONTANER, L., *Manual de Derecho Administrativo*, edit. Civitas, 2. ediz, Madrid, 1991, o. 267.

(24) GONZÁLEZ NAVARRO berak izendatua du ROYO VILLANOVA (*Derecho...*, aip. ob., o. 526).

(25) DORREGO DE CARLOS, A. eta GUTIÉRREZ VICEN, C. ere eritzi horretakoak dira (aip. ob., o. 458).

(26) Auzitegi Gorenaren 1989. apirilaren 25eko eta 1992. apirilaren 20ko Sententziak dira horren adierazgarri (hurrenez hurren, Ar. 3472 eta 2919).

(27) PARADA VÁZQUEZ, aip. ob., o. 137.

(28) GONZÁLEZ PÉREZ, J., eta GONZÁLEZ NAVARRO, F., Régimen jurídico de las Administraciones Públicas y procedimiento administrativo común (Ley 30/1992, de 26 de noviembre), edit. Civitas, Madrid, 1993, o. 720 (3. orri-oinean).

(29) Defentsa gabezia materiala esan nahi da.

Administrazioa bera ere izan daiteke subjektu pasibo, bere eskubide edo interesak ukitu dituen egintzaren bat sortu bada (30).

II.2.1.1. Subjektu aktiboa

Subjektu aktiboaren eremuan hiru agente mota bereizi izan dira: igorle edo emisorea, transmisorea eta notifikatzailea (31).

II.2.1.1.a. Agente igorlea

Bidaliko den mezuaren egilea da, baina ez du jakinarazi beharreko egintzarena ere zertan izanik, printzipioz, behintzat. Administrazioaren kontura jardungo du eta azken honi egotziko zaio bere jarduera.

Aurreko Legearen 78. artikulua, arau orokor moduan, egintza sortu zuen organoari esleitzen zion jakinarazpen mezua eratzeko eginkizuna, jakinarazpenak zuzenean kurtsatzeko aginduz. Edonola ere salbuetsia geratu zen arau orokor hori, zeren eta, alde batetik, 6. artikuluan ministrarritza agintarien zenbait egintza beheragoko organoek osa eta jakinaraz zitzaten ahalbideratu baitzen eta, bestetik, izendapen, emakida, lizentzia edota antzeko izaera zuten egintza multzoak sortzerakoan, haiek xedatzeko eskuduntza zuen organoak ez baitzuen jakinarazpen mezua zertan eginik, 42. artikulua ulertzera ematen zuenez.

Lege berriak, tamalez, ez du 78. artikulua bezalako aurreikuspen orokorrik egin gai honi dagokionean. Formula inpersonalak erabili ditu jakinarazpenak arautzerakoan, erreferentzia zehatzei itzuri eginez. Zerbait esan duen bakarra 19.1. artikulua berria izan da, Administrazio baten organoen arteko berriemateak beti zuzenean egiteko aginduz. Artikulu honek aurreko Legearen 78.1 artikulua Administrazio berdina ari deneko suposamendura mugatu du. Hau da, Administrazio beraren bi organoren artean egiteko komunikazioa (32) bada, artikulu horren aurreikuspena jarraituz, agente igorlea egintza eman duen bera izango da derrigorrez. Baina, gainontzeko kasuei (Administrazio ezberdinen organoen arteko jakinarazpen eta bestelako pertsona fisiko edo juridikoei eginikoen kasuei) ez die eman erantzunik.

Horrexegatik ezin da esan, printzipioz, egintza eman duenarengandik bereiziriko organo batek jakinarazpena kurtsatzea debekatua dagoenik (33).

Halere, zenbaitek, Lege berriaren 61. Artikulutik eratorri du lehen egintza administratiboa eman duen organoak egin beharko duela jakinarazpena (34).

(30) Zenbait kasutan, subjektu aktibo den Administrazio bera, subjektu pasibo izan daiteke aldi berean. Dena den, suposamendu honetan, subjektu (pertsona juridiko) beraren organoen arteko berriemateak izanik, jakinarazpenaz hitz egitea baina egokiagoa dirudi "komunikazio" soil deitzea. Izan ere, bi organo horiek interes berberak dituztenez, ezin baita esan jakinarazi behar izateko interesdunik (kontzeptu hau geroxeago azalduko dugun zentzuan harturik) badagoenik.

(31) LÓPEZ MERINO, F., *La notificación en el ordenamiento jurídico español*, edit. Gomares, 2. ediz..Granada, 1989, o. 123 eta h.

(32) Aurretik azaldu dugun zentzua emanik.

(33) Auzitegi Gorenaren 1986. otsailaren 10eko Epaiak (Ar. 1423) dioenez, Administrazio Lokalaren barman, Udal-Idazkariak, organo fedemaille izaki, jakinarazpena egiteko eskuduntza badu.

(34) Esentziazko arazoa ez dela uste izan arren. Ik. MARTIN REBOLLO, L., "Disposiciones administrativas y actos administrativos", LEGUINA VILLA, J., eta SÁNCHEZ MORÓN, M.-k zuzenduriko *La nueva ley de régimen jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común* obra kolektiboa, edit. Tecnos, Madrid, 1993, o. 180.

Egiten duenak egin, jakinarazpena egitearen erantzukizuna arazoak ebatzea edo despatxatzea bere esku duen sail administratiboaren tituludunaren edo Administrazio Publikoaren zerbitzuko pertsonalaren gain geratu da Legearen 41.1. artikulua araberara.

Hortik eratorri dute GONZÁLEZ PÉREZ eta GONZÁLEZ NAVARRO-k prozedura izapidetu duen Sekzioaren Buru egiten duenak izango duela jakinarazpena gauzatzeko erantzukizuna (35).

Esan daiteke benetan jakinarazpena egitearen erantzukizuna aipatu elementu horiengan kokatua dagoela, eta are gehiago, zuzenen egingo duena ere lehen egintza administratiboaren egilea izango dela normalean. Baina, organo horrek nagikeriaz atzeratua izan eta mezua beste norbaitek, borondatez, egokia den moduan (beharrezko elementuekin) egingo balu ere, jakinarazpena berdin-berdin baliozkoa izango litzateke Lege berriaren araberara, gure uste apalean: nahiz eta norbaiti irregularitasuna dela irudi badakioke, hala izan arren, gero ere ikusiko dugunez, jakinarazpena izaera erabat formaleko egintza dugularik, baliogabetzen ez duen irregularitasuna izango litzateke, eta inolaz ere ez litzateke hemen aplikatu ahal izango ageriko eskugabeziaren oztoporik.

II.2.1.1 .b. Agente transmisorea

Mezua emisorearen eremutik jakinarazlearenera eramateaz arduratuko da. Zeharkako jakinarazpenaren aurrean egongo gara transmisorea azaltzen zaigunean.

Aurreko Legeak, esan bezala, 78. artikuluan arau orokortzat jakinarazpen zuzena ezarri zuenez, transmisoreari uzten zion lekua ezereza zen. Iragarpen

(35) Régimen jurídico..., aip. ob., o. 722-723.

bidez egindako jakinarazpenen suposamenduek (80.3. artikuluan) besterik ez zuten onartzen transmisorearen jarduera.

Lege berriak ere ageri du iragarpenen bidea bere 59.4. artikuluan. Kasu horretan behintzat, argi dago, esan bezala, Administrazio berdineko edo beste bateko hirugarren agente batek parte hartu dezakeela, transmisore moduan, mezua iragarpena egin behar den leku edo hedabideraino hei dadin.

Lege berriak beste aurreikuspenik ez duenez, esan daiteke hemen ere posibilitatea irekia geratu dela agente transmisore honekiko.

Transmisore hori Administrazio berekoa edo beste Administrazioaren batekoa izan daiteke.

Honen harian, nahiz eta, beste Administrazio bati ezin izango zaion derrigorrez inposatu jakinarazpena egiterakoan parte hartzea (36), gogoratu beharrekoak dira, lege berriak Administrazio Publikoen arteko harremanekiko bere 4. artikuluan ezarri dituen printzipioak. Eta, batez ere, bere 1 ,(d). eta 2. puntuek Administrazio Publikoekiko aurreikusiriko betebeharra, beste Administrazioek, beraien eskuduntzak eraginkortasunez egikaritzearen, eska diezazkieketen lankidetzeta eta laguntza aktiboak eman ditzaten. Eska tutako laguntza ukatu ahal izateko, Administrazio batek ezin du alegatu horretarako prestatua ez egotea edota bere interesekiko edo funtzio betetzearekiko kalte larriak sortzeko posibilitatea besterik (4.3. artikulua). Bi eskakizun ditu MADRIGAL GARCIA-k Entitate lokalen bidezko jakinarazpenak direla eta: alde batetik, Estatu edo Elkarte Autonomoetako Administrazioek lankidetzeta hori beharrezko izatea jakinarazpenak eraginkortasunez egin ahal izateko, eta bestetik, Korporazio Lokala lankidetzeta hori (beste Administra zioarekin hitzarturiko baldintzetan) gauzatzearekin ados egotea (37). Gure ustetan, ordea, gaur egun eskakizun horiek ez lirateke Entitate Lokalen kasura mugatu behar, baizik eta beste edozein Administrazioaren arteko lankidetzeta suposamenduetara ere luzatu beharko lirateke.

II.2.1.1.c. Agente jakinarazlea

Agente hau izango da, azkenik, mezua helburukoari edo haren orde har dezakeenari emango diona. Zenbait kasutan jakinarazpena egin behar duen Administrazio beraren organo izango da, baina beste zenbaitetan Administrazioz kanpoko elementua (38).

(36) Aurreko Legearekin sortua zen jada doktrinan (eta batez ere Konstituzioak Entitate Lokalen autonomia aldarrikatu ondoren), nahiz eta Estatuak eginkizun hori izan arren, Entitate Lokalek *derrigorrez* egin beharrak zituzten jakinarazpenen aurkako iritzia (GONZÁLEZ NAVARRO, *Derecho...* o. 537 eta h., eta "Notificaciones...", aip. ob., o. 28 eta h.).

(37) Aip. ob., o. 230-231. Badute beraien zioa: izan ere, Entitate horiek Estatuaren jakinarazpenekiko izan duten jarduera nahitaezkoztat kalifikatu izan baitu araudiak.

(38) Horren adibide gisa, Administrazioak enpresa pribatuekin, hauek jakinarazpen zerbitzuan lagun dezaten, egin ohi dituen kontratuak.

Jakinarazlea nor izango denaren zehaztapena erabilitako bidearen arabera geratu da, aurreko Legean nahiz oraingoan. Ezberdintasuna, egotez gero, aurreikusiriko bideetan egongo denez, puntu hori aztertzean argituko ditugu gure zalantzak (inongo oztoporik gabe onar daiteke, halere, aurreko Legeak ahalbideraturiko agente jakinarazleek berrian ere eragozpenik ez dutela aurkituko). Edozein kasutan, jakinarazleak funtzionari publikoa izan beharko du, edo Administrazioarekin nolabaiteko erantzukizun lotura duena bederen, interesdunak duen eskubideak babespean jarrai dezan.

Hemen ere aplikagarri gertatuko da transmisorearen kasuan aipatu izan den Administrazio arteko elkarkidetzeta hori, noski. Are gehiago, esan daiteke jakinarazlearen eremu honetan nabariagoa izango dela aplikazio hori joku gehiago izan ohi duen figura baita.

Izan ere, ezin zaio subjektu aktiboari eskeiniriko atal honi amaierarik eman azken ohartxo bat egin gabe, nahiz eta beharbada soberan egongo den. Zera da esan nahi dena: hiru elementu desberdin aurkeztu ditugun arren, ez da beharrezkoa jakinarazpen orotan hirurak agertzea, edo beste hitz batzutan, hiruren eginkizunak pertsona ezberdinek betetzea. Zenbait kasutan emisorea bera arduratuko da mezua subjektu pasiboari jakitera emateaz (39), suposamendu horietan berak beteko du agente jakinarazlearen papera, eta ez da beharrezkoa izango transmisorerik. Beste zenbaitetan emisoreak ez, baizik eta jakinarazleak emango dio jakinarazpena subjektu pasiboari, baina bitartekorik ez da agertuko mezu sortzaile eta mezu emailearen artean, orduan ere transmisorearen figura ezabatuko delarik.

Zertzelada hauekin subjektu aktiboaren eremua nolabait marraztu ondoren, *subjektu pasiboarenera* igaro gaitezen jarraian. Honi eman behar zaio egintza administratiboaren berri.

II.2.1.2. Subjektu pasiboa

Eremu honetan ere, beste bi elementu bereiz genitzake: helburukoa eta hartzailea (40).

II.2.1.2.a. Helburukoa

Jakinarazpena egin behar zaion pertsona, fisiko edo juridiko, zehaztu edo zehazgarria, izango da.

Aurreko Legeak bere 79.1. artikuluan egiten zuen moduan, oraingo Legearen 58.1. artikulua ere interesduna aipatu du jakinarazpenaren helburuko bezala. Prozedurarekiko interesduntzat zein hartuko den 31.1. artikuluan

(39) Aipatua dugun eran, lehen egintza administratiboa sortu duen organo berak ere egin dezake mezua (beraz, emisore izango da aldi berean).

(40) LOPEZ MERINO, aip. ob., o. 151. eta h.

zehaztu da azken arau honetan: eskubide zehatz baten jabea interesdun izango da, eskubide hura dela eta, prozedura bultzatu duenean, edota prozedurarik hasierazi ez arren, bertan har daiteken ebazpenak eskubide hura ukitua gerta dakiokenean (nahiz eta prozeduran agertu ez arren (41)) eta interes legitimo individual edo taldekoen tituluduna, prozedura bultzatu duenean, edota interes horiek prozeduraren ebazpenak uki ditzakeelarik, hori gertatu aurretik bertan agertu denean. Beraz, aurreko Legearen 23. artikulua hitzez hitz jasotako kontzeptua zabaldu egin dela azpimarratu behar da (nahiz eta hemen ez den artikulua horren azterketa sakonik egingo), baina harekin gertatzen zen bezala, orain ere, ebazpenak ukituriko interes legitimoak dituen pertsona ez dago zertan jakinarazirik, prozeduran agertu ez bada (42). Prozedura izapidatzen ari den bitartean interesdun izan litezken pertsonak bertara deitu gabe geratu direla nabari bada, izapidatze horren berri emateko agindua ezarri du Lege berriaren 34. artikulua, eta era berean berri eman beharko zaie prozeduran agertu ez diren interesdunei ere, ageturiko interesdunek (39.2. artikulua ezarritako lankidetzeta-betebeharra jarraiki) haiei buruz emandako datuak direla medio Administrazioak identifikatu dituen. Bi berrikuntza azpimarragarri hauen azken funtsa Konstituzio Espainiarraren 24.1. artikuluan kokatu daitekeela esan genezake.

Jakinarazpena egokitzen hartu du doktrinak Jabetza-Erregistroan tituludun gisa agertzen den pertsonari egin zaion kasuetan (43). Bestalde, planteatu da (44) prozeduran interesdunak direnez gain, beste zenbait pertsonak ere (testigu, peritu...) parte hartzen duenez, haiei ere jakinarazi beharko litzaiekeela, ukitzen dituztenean. Dena den, proposamen horri ñabarduraren bat egitea egokia dirudi. Izan ere, egia da aipaturiko pertsona horiei egintzaren berri eman behar zaiela, prozeduran duten papera behar bezala bete ahal izan dezaten. Baina horrek ez du esan nahi berriematea nahita ezean jakinarazpen baten bitartez (eta tresna honek, ikusiko dugunez bete behar dituen baldintza formal guztiak betez) egin beharko denik. Hori hala gertatuko da pertsona horiek, arrazoi gehigarri bat dela eta, prozeduran interesdun bihurtu direnean (ikusia dugu zeintzuk diren interesdunak, legearen esana kontutan izanik), baina gainerantzerakoan ez derrigorrez (45).

(41) GARCIA DE ENTERRIA eta FERNANDEZ RODRIGUEZ, aip. ob., o. 556.

(42) 1981. abenduaren 22ko Epai batean (Ar. 5452) Auzitegi Gorenak esana du Lurzoru-Legeak aurreikusirik akzio publikoak soilik legitimaturikoei ez dagoela zertan jakinarazirik eraikitzeo lizentziak emanez harturiko akordiorik (nahikoa da argitaratze hutsarekin).

(43) GARRIDO FALLA eta FERNANDEZ PASTRANA, aip. ob., o. 125.

(44) MADRIGAL GARCIA, aip. ob., o. 234.

(45) Zehapen-ahalmena egikaritzeko prozeduraren Erregelamenduak [Errege Dekretu 1398/1993, abuztuaren 4koaren bidez onartuak (BOE zk. 189, abuztuaren 9koa)] ere bere 13.2. artikuluan hasera akordioa interesatuei jakinarazteaz gain denuntziagileari ere ("hala dagokionean") jakinarazlea agindu du. Badirudi, beraz, denuntziagileak ez duela beti zertan prozedurako interesdun bihurturik (honi buruz, Ik. REBOLLO PUIG, M., "Interesados y denunciantes en el procedimiento administrativo sancionador", *Poder Judicial*, zk. 29, 1993, o. 61, nahiz eta 1958. go legea indarrean zegoela idatzia izan).

Jakinaraztea noiz "dagokion" jakiteko 11.2. artikulua 2. Lerroaldera jo beharko dugu. Honen arabera, denuntziarekin batera hasteko eskaria aurkeztua izan denean, denuntziagileari prozedura hasteari buruzko erabakiaren (hau da, hasiko den edo ez) berri eman beharko dio. Beraz, badirudi suposamendu honetara mugatuko dela denuntziagilea jakinarazi beharra.

Dena den, aurreikuspen horri 11.1. artikulua 1. lerroaldearekin nolabaiteko desegokitasuna nabari zaio. Izan ere, bertan zehapen prozedurak beti ofizioz hasiko direla baieztatu ondoren, hurrengo artikuluan, aurretik azaldua izan den moduan, hasteko eskariari buruzko bai baitirudi prozedura alderdiak eskatuta (interesdunak eskatuta ere bai) has ote daitekeen...).

Dena den, eta esan bezala 79.1. artikulua interesduna besterik ez aipatu arren, ez da hura Legeak aurrekusi duen helburuko bakarra. Doktrinak salatua duen koherenziagabezia (46) hori nabaria izanik, halere, *ordezkaria* ere izan daiteke zenbait kasutan helburukoa eta, interesdunaren ordezkari berari egindako jakinarazpena egokia izango da. Are gehiago, ordezkaria dagoela jasoa geratu bada prozeduran (47), jakinarazpena hari zuzendu beharko zaio (48). Izan ere, jarduteko gaitasuna duen interesdunak, 32. artikulua 1. lerroaldeak dioenez, Administrazioarekiko harremanak ordezkari bidez gara ditzake, eta suposamendu horretan ordezkari horrekin eramango dira jarduera administratiboak, interesdunak aurkakorik ez badu adierazi behintzat.

Doktrinaren ustez, pertsona batek ordezkari-izaera galdu, eta datu hori ez balitzaito Administrazioari ezagutarazi, ordezkari ohiari eginiko jakinarazpena baliozkoa izango litzateke (49).

Interesduna *pertsona juridikoa* izateak ez du trataera berezirik merezi izan Lege berrian, zeinak 1958. go Legearen urratsak jarraitu baititu hemen ere. Beraz, eta ordezkariaren posibilitatea irekia geratu denez, ikusi bezala, arlo honetan izango du jokorik gehien figura horrek. Prozedura ofizioz hasia bada, pertsona juridiko horren legezko ordezkaria izango da jakinarazpena hartuko duena. Baina pertsona juridikoaren eskariz hasia izan denean, azken honek lan hori garatzeko ordezkari legala ez den beste norbait izenda dezake.

Auzitegi Gorenak deklaratua du, bere 1991. ekainaren 11ko Epaian (Ar. 5246), pertsona juridikoaren ordezkaria, aldi berean, prozedura horretan interesduna denean jakinarazpen bikoitza beharrezkoa dela. Bestalde, 1993. ekainaren 15ekoan (Ar. 4531) onartu du zurgapen-suposamendu batetan, eta ondorengo elkarteak Administrazioak eginiko berriemate guztiak hartu zituzenez, pertsona juridiko berri horrek espedientean aurrekoaren lekua hartzea.

(46) MARTIN REBOLLO, aip. ob., o. 179.

(47) Hala jasoz badu interesdunak.

(48) Iritzi berekoa da MADRIGAL GARCÍA ere (ibidem., o. 233).

(49) GARRIDO FALLA eta FERNANDEZ PASTRANA, aip. ob., o. 125.

Prozeduran *interesdun anitz* badaude, haiekiko jakinarazpenak erregela ezberdinak jarraituko ditu nork hasia den (interesdun horiek edota Administrazioak ofizioz) kontutan izanik.

Lehenengo kasuan, hau da, interesdunek Administrazioari zuzenduriko idatzi batek eragin badu prozedura, bertako jakinarazpenak beroiek izendaturiko pertsonarekiko egingo dira 33. artikulua agindu duenez. Pertsona hori, guztien ordezkaria izan daiteke (beraz, taldetik kanpora dagoena), edo beroien artean horretarako hautatu duten norbait eta, besterik ez bada esan, idazkian lehenengo agertzen denari egingo zaio.

Gauzak aldatu egingo dira Administrazioak ofizioz hasia badu prozedura, Legeak espreski ez aurreikusi arren, badirudi ukituriko interesdun guztiekiko egin behar dela jakinarazpena. Izan ere, guztien artean bakarrari berri emateak gainerantzekoen defentsa gabezia sorraraziko bailuke (50).

II.2.1.2.b. Hartzailea

Jakinarazpena errezibituko duen pertsona da.

Helburukoa izango da normalean hartzaile ere, 59. artikulua bere 1. eta 3. zerbakieta egin dituen aurreikuspenetatik erator dezakegunez. Interesdunak edo bere ordezkariak jakinarazpena hartu duela edo hura hartzeari uko egin diola espedientean jaso izan dadin agindu da prezeptu horietan.

Askotan gertatu ohi da, ordea, helburukoa eta hartzailea pertsona bera ez izatea. Lege berriaren 59.2. artikulua bigarren leerroaldean aurkituko dugu suposamendu hau, aurreko Legearekiko aldaketa garrantzitsua nabari dezakegularik. Oraingo araupenaren arabera, jakinarazpena interesdunaren bizilekuan entregatzerakoan, interesduna bera egon ezean, bertan dagoen *edonori* eman dakioke, bere nortasuna jasoz gero.

Gogoratuko denez, Lege zaharrak pertsona horrek interesdunarekiko zuen ahaidetasun-harremana edo bizileku horretan egotearen arrazoa jaso beharra agindua zuen (80.2. artikulua) (51).

(50) MARTIN REBOLLO-k (aip. ob., o. 233) Auzitegi Gorenaren 1990. uztailaren 17ko Epaiak (Ar. 6639; esana gogorazi digu: jabekideen artean jakinarazpena egiteko edozein arbitrarioki aukeratzeak gainerantzekoen defentsa gabezia ekarriko luke.

Auzitegi Gorenak gehiagotan ere azpimarratu du horrelako kasuetan interesdun guztiei jakinarazi beharra. Horrela, 1993. maiatzaren 22ko Epaiak (Ar. 5821), beste Epai ugari aipatuz, higigarria eskualdatu dutenei Zerga baten kitapena (Lursailen Balio-Gehikuntzaren gaineko Udal-Zergarena hain zuzen ere) ez jakinarazteak prozedura esentzian akasdu egin duela uste izan du, berez duten defentsa eskubideaz gabetuak izan baitira, bere esanetan.

(51) Ik., besteak beste, Auzitegi Gorenaren 1991. abenduaren 2ko (Ar. 9553), 1992. urtarrilaren 27ko (Ar. 542) eta 1992. otsailaren 19ko (Ar. 2094) Epaiak. Nabardura soil bezala aipa daiteke Auzitegi horrek etxeko atezainak harturiko jakinarazpena baliozkotzat eman izan duela 1990. martxoaren 22ko (Ar. 2110) eta 1992. ekainaren 1eko (Ar.4615) Epaietan. 1990. urriaren 10eko Epaiak (Ar. 7853) ere, oraingo honetan pertsona juridiko baten kasuan, entitatearen enplegatutako batek hartutakoaren baliozkotasuna baieztatu zuen.

Orain, aurreko Legeak ezarriak zituen mugapenak ezabatuak geratu dira. Helburukoak egintza jakinaraztea oztopatzeko erabili izan ohi dituen trikimailuak kontutan izanik, Administrazioari jakinarazpen-jarduera ahalik eta gehien erraztea da aldaketaren arrazoitzat hartua izan dena (52). Edonola ere, interesdunaren eskubideak urratzeko arriskua ere ekar dezake horren formula zabalak. Alde batetik, jakinarazpena egiteko unean interesdunarekin harreman iragankorrik ez duen pertsonarik egon daiteke bizilekuan (53), eta bestetik, ez dirudi arrazoizkoa jakinarazpena aurretik aipaturiko pertsona horiei entregatu zaien une beretik ondorioak sortzen hastea, interesdunak ezagutuko duen uneari buruzko beste berririk eduki gabe (54). Jurisprudenziari egokituko zaio, interesdunaren eskubideak bermatzeko duen eginkizuna betez, Legearen idazkera leuntzea.

Bizileku horretan dagoenak interesdunaren "egitatezko ordezkaritza" beteko du Lege berriaren 32.3. artikulua esana baitu izapide hutsezko egintzak direnean ordezkaritza dagoela uste izango dela, bestelako frogaren beharrik gabe. Edonola ere, egitatezko ordezkari horren nortasuna jaso beharko dela esana dugu. Pertsona horrek, beraz, bere Nortasun Agiri Nazionala edo helburu horretarako egokia den beste edozein dokumentu erakuts diezaioke agente jakinarazleari (55).

Gai honekin amaitu aurretik, beste arazo bat ere planteatuko zaigu Legearen aurreikuspen hau dela eta: hartzailearen adina. Haur bati baliozki entrega al dakioke jakinarazpenik? Zenbait autoreren ustetan (56) hartzailea adinez nagusia beharko lukeen arren, Auzitegi Gorenak baliozkotzat eman izan du interesdunaren alaba adin txikikoa (57) eta bere zentzuna nahikoa dela sumatzen badu agente jakinarazleak, beste zenbaitentzat ez dirudi oztoporik egon beharko lukeenik horretarako (58).

II.2.2. Nor (edo zer): elementu objektiboak

Atal honetan jakinarazpenaren elementu objektiboak ukituko ditugu. Horretarako bi azpi-atal egin eta berrietan ondoko bi arazo hauek ikusi ditzagun: jakinarazi beharreko egintza eta jakinarazpen-mezuaren edukia.

(52) DORREGO DE CARLOS eta GUTIÉRREZ VICEN, aip. ob., o. 463.

(53) Zerrailgin, arotz, kristalari, pintatzaile..., azken finean, interesdunaren bizilekuan edozein konponketa puntual egiteko kontratatuak izan diren profesionalak, batez ere.

(54) GARRIDO FALLA eta FERNANDEZ PASTRANA, aip. ob., o. 129.

(55) MADRIGAL GARCÍA, aip. ob., o. 238.

(56) GARCÍA DE ENTERRIA eta FERNANDEZ RODRÍGUEZ, aip. ob., o. 556.

(57) 1985. apirilaren 19ko Epaia (Ar. 4740).

(58) Uste hori agertu du VÁZQUEZ IRUZUBIETA-k (Procedimiento administrativo común, Edit. Revista de Derecho Privado, Madrid, 1993, o. 185).

II.2.2.1. Jakinarazi beharreko egintza

Lege berriaren 58.1. artikulua jakinarazpenaren objektu egin du interesdunen eskubide eta interesak uki ditzaken ebazpen nahiz egintza administratibo oro. Ebazpenak prozedura administratiboari amaiera ematen dionez, gainerantzeko egintzen erreferentzia izapide-egintzekikoa dela ulertu beharko da. Era horretan aurreko Legearen 79.1 artikulua ebazpen administratibo hutsekiko egina zuen mugapena zabaldu egin da oraingoan (59).

1992. go Lege berak aurreikusiak ditu, prozedurari amaierarik eman ez arren, interesdunari jakinarazi beharrekoak diren izapidezko zenbait egintza. Adibidez, egintza administratiboak sortzeko prozeduraren barruan, interesdunari frogatzea zein leku, data eta ordutan egingo den jakinarazteko obligazioa du jarduten ari den organoak (81. artikulua) eta prozedura zehatzailearen barruan, ustezko erantzuleari zenbait datu (60) jakinaraziak izateko eskubidea arrezagutu zaio (134. artikulua). Erreforma prozesala egiteko premia neurriak hartu dituen Legeak (61), Eskumen edo Jurisdikzio Kontentzioso Administratiboa arautzen duen Legearen 64. artikuluari eman dion idazkera berriak, bestalde, eskumen horren aurrean aurkatua izan den jarduera baten sortzailea den Administrazioak espediente Auzitegira bidaltzeko akordioa bertan interesdun gisa agertzen diren guztiei jakinarazi diezaiela aurreikusi du (62).

Dena den planteatu daiteke ea interesdunaren eskubide eta interesak ukitzen dituen izapide egintza oro jakinarazi behar ote den. Izan ere, izapide egintzak espedientearen barruan eman direnez, bertan agertutakoen eskubide edo interesak uki baititzakete. Legearen 35.(a) artikulua interesdunari prozedura izapideak ezagutzeko eta bertako dokumentuen kopiak lortzeko eskubidea eman diolarik, ez dirudi egokia galdera horri baieztatzeko erantzuna emateak. Hori dela eta, egintza mota honen jakinarazpenaren eremua helegingarria den izapide egintza orotara mugatu daiteke (63), zenbait

(59) Zenbait autorek 79.1. artikulua horren "ebazpen" hitza zentzu zabalean ulertu zuen halere (GONZALEZ PÉREZ, *Comentarios a la Ley de Procedimiento Administrativo*, Edit. Civitas, Madrid, 1977 o. 305; GONZÁLEZ NAVARRO, *Derecho...*, aip. ob., o. 532 eta h.).

(60) Egotzi zaizkion egintzak, egintza horiek ekar ditzaketen urrapernak, ezar dakizkioken zehapenak. Instrukzioaren nortasuna eta zehapena ezartzeko eskudun den agintariarena, eskuduntza hori eman dion arauarekin batera.

(61) Lege 10/1992, apirilaren 30ekoak (BOE zk. 108, maiatzaren 5ekoak).

(62) Beraz, jarduera baten gain helegite kontentzioso-administratiboa zintzilik dagoela jakinarazpen administratibo baten bidez egin beharko da. Jakinarazpen-egintzak, kasu honetan, botere judizialarekin lankidetzan emandako egintza administratiboaren izaera du (Ikus, XIOL RÍOS, J. A., *La reforma del Proceso Contencioso-Administrativo*, edit. Tirant lo Blanch, Valencia, 1992, o. 93 eta h.).

(63) MARTÍN REBOLLO, aip. ob., o. 177-179; GARRIDO FALLA eta FERNÁNDEZ PASTRANA, aip. ob., o. 125. Gogoratu denez, lege berriaren 107.1. artikulua arabera, prozedura jarraitzea ezinezko egiten dutenak eta defentsa gabezia sorrarazten duten izapide-egintzak izango dira helegingarriak.

autorek interesdunak prozeduran duen defentsa-eskubidearen urrapen suposamenduetarako soilik utzi badu ere (64). Gai honetan, beraz, erabili beharreko irizpide nagusia defentsagabezia ez sortzea izango da (65).

II.2.2.2. Jakinarazpen-mezuaren edukia

Jakinarazteko obligazioa erabat formala da. Horrek esan nahi du Legeak aurreikusitako forman eginiko jakinarazpena besterik ez dela onartuko. Jakinarazpenaren edukierako baldintzak, jarraian ikusiko ditugunak, obligazio formal hori betetzeko aurrepostu dira (66) eta ezinbestean kontutan izan beharko ditu Administrazioak administratuari bere egintzaren berri ematean. Lege berriaren 58.2. artikuluan zehaztua geratu da aipaturiko eduki hori, aurreko Legearen 79.2. artikulua idazkerarekiko aldaketa handirik sartu gabe. Ondoko elementu hauek agertu beharko dira helburukoari heldu beharko zaion jakinarazpen mezuan:

II.2.2.2.a. Jakinarazi zaion egintza edo ebazpenaren testu osoa

Bigarren zenbakian 58. artikulua "ebazpen»» hitza bakarrik agertzen duen arren, lehenarekin gutxiengo koherentzia nahi bada ebazpen ez diren egintzen kasuan ere testu osoa jaso beharko du jakinarazpenak (67).

Esan bezala, egintzaren testu osoa behar da (68), bere edukia argi, ulertzeko moduan, agertuz (69). Ez da nahikoa ez laburpenik ezta haren zatirik ere, nahiz eta zati hori erabakia izan. *Motibazioa* barneratu beharko du testu oso horrek, egintza edo ebazpena 54. artikuluan aurreikusirik suposamentuetan (70)

(64) GARCÍA DE ENTERRIA eta FERNANDEZ RODRÍGUEZ, aip. ob., o. 555.

(65) Prozedurak jarraitzea ezinezkotzen duten izapide-egintzen helegingarritasunaren azken arrazoia ere horixe izango da: interesdunari defentsa gabeziarik ez sortzea.

Ari honetan aipa dezagun Europako Justizia Auzitegiak C97/91 arazoan (Oleificio Borelli SpA, Elkarte Europarren Komisioaren eta Italiako Liguria Eskualdearen aurka) emandako 1992. abenduaren 3ko Epaia. Bertan Auzitegi horrek izapide egintzak bereizirik helegiteko posibilitatea indartua utzi du: Europako Elkarteak ebatzi beharreko prozedura batean organo estatalek nahita ezean eman beharreko txostenak, nahiz eta barne-arau prozesalak horrela ez aurreikusi, helegingarriak izango dira jurisdikzio estatalen aurrean. Epai horren esanari jarraiki, agintari estatal baten erabaki oren kontrol jurisdikzionala Zuzenbide Komunitarioaren printzipio orokorra omen da, Estatu kideen tradizio konstituzionaleatik eratorria hain zuzen ere (Ik. GARCÍA DE ENTERRIA eta FERNANDEZ RODRÍGUEZ, *Curso de Derecho Administrativo*, Tomo II, Edit. Civitas, Madrid, 1993, 4. ediz., o. 439 eta 608).

(66) GARCÍA DE ENTERRIA eta FERNANDEZ RODRÍGUEZ, *Curso...*, Tomo I, aip. ob., o. 556.

(67) Eskakizun honi buruz ez du gehiegizko argitasunik eman Auzitegi Gorenaren Jurisprudentziak. Horren lekuko aipa daitezke, besteak beste, 1986. otsailaren 7ko (Ar. 1420) eta 1992. maiatzaren 12ko (Ar. 4308) Epaiak.

(68) 1986. uztailaren 7ko Agindu batek berriemate-egintzetan zenbait datu azalerazten zituen: ebazpena eman duen organoaren nortasuna, eskuordetza edo ordezkotzan ari izan den, eta ebazpena sinatu duenaren izena zehaztea sinadura eta errubrikaren azpian.

(69) Auzitegi Gorenaren 1948. urriaren 18ko Epai batek jakinarazirik egintzaren edukia ezagutzen uzten ez zuen idazkera anormala deuseztasun-eragiletzat hartu zuen.

(70) Honen arabera motibatuak izango dira eskubideak edo interes legitimoak mugatu edota ofiziozko berrikuspen prozedura, helegite administratibo, bide judicialaren aurretiazko murtzilo edo arbitraia prozedurak ebazten badituzte. Baita aurretiazko jardueratan jarraitutako irizpidetik edo kontsulta organoen irizpideetatik aldentzen badira ere, beste egintza bat etetea, urgentziazko izapidea aplikatzea edo epeak zabaltzea erabakitzen badute, ahalmen diskrezionalak egikaritzu xedatuak izan badira edota lege edo erregelamendu batek espreski aginduta motibatuak izan behar badute. Lege berberak beste zenbait artikulutan ageri du honelako suposamendurik: artibategi eta erregistroetara heltzeko eskubidea murrizten badu ebazpenen batek,

sartzen bada (89.3. artikulua (71)) behintzat (72). *Borondatezko egintzetan* borondate horren zergatia espreski azaldu beharko den bitartean, *ezagutzazko egintzetan* ziurtaturiko egitate eta ziurtatzeko ahalmenaren legezko oinarriari buruzko azalpenek osatuko dute (ustezko egintzaren ziurtagiriaren edukiak, horrez gain, egintza haren nolabaiteko motibazioa eratuko du, *per relationem* bada ere, egitate batzuk eta bere legezko ondorioak finkatuko ditu eta) eta *judiziozko egintzetan*, berriz, motibazioa egintzaren eduki bera izango da (73).

II.2.2.2.b. Bide administratiboan behin betikoa den edo ez

Lege berrian gai honetan arau orokorra ematen diguna 109. artikulua (74) da, Xedapen Gehigarri bederatzigarrenak osatu duelarik (75). Bide administratiboari amaierarik eman ez badio, bide non bukatzeko helegite

motibazioa ekarri beharko du berekin ebazpen horrek (37 4 artikulua) eta zehapen-prozedurari amaiera emango dion ebazpen a ere motibatua izan behar da (138.1 artikulua).

(71) FERNANDO PABLO-k (*La motivación del acto administrativo*, edit. Tecnos, Madrid, 1993, o. 231 eta h.) seinatu duenez, 89.3. artikulua gai honi buruz ageri duen idazkerak motibazioaren eskakizuna egintzaren edukin- eta forma-elementuen arteko gune batean kokaturik utzi du: bigarrenen artean ez du espreski sartu, eta beraz, zenbait kasutan edukin-elementua izan daiteke. Egintzaren erabakia prozedurako datuekiko erreferentzia besterik egin gabe justifikatu duen motibazioa formazko elementutzat har daiteken arren, ebazpenaren justifikazioa berez eman duen motibazioa haren edukiaren barnean sartuko da. Azken kasu honetan soilik eragingo du jakinarazpenaren akatsa motibazioa ez azaltzeak (eta hori sor dezaken defentsa gabezia alde batera utzirik, hau da, kontutan hartu gabe).

Legeek ezar ditzaketen suposamenduez gain, kasu batzutan motibazio espresua ordenamendu juridikoaren zenbait printzipio eta oinarriko eskubidek (legezkotasun-printzipioak, tutela judicial eraginkorrek, arbitrariokeria-debekuak edo objektibotasun-galdekizunak, hain zuzen ere) galdatua egon daiteke, autore horren ustetan.

(72) Motibazioaren garrantzia gero eta handiagoa dela kontutan izan, kontrol judicial egokia aurrera eraman ahal izateko ezinbesteko galdekizuna baitugu azken finean (Gai hori dela eta, ikus FERNÁNDEZ RODRÍGUEZ, "De nuevo sobre el poder discrecional y su ejercicio arbitrario", *CIVITAS/Revista Española de Derecho Administrativo*, zk. 80, 1993, o. 590 eta h.).

Zuzenbide Komunitarioak instituzio europarrei beraien erabaki eta egintzak motibatuzko obligazioa ezarri die (ikus Batasun Europarraren Hitzarmenaren Artikuluak Erromako Tratuaren 190. artikuluari eman dion idazkera berria). Horrez gain, Europako Justizia Auzitegiak 1987. urriaren 15ean emandako Epaiak (UNECTEF v./Heylens, arazo zk. 222/86, Rec, 1987, o. 4097) Estatuei ere Tratatuek hiritar europarrei emandako oinarriko eskubideak ukitu edo murrizten dituzten egintzak motibatuzko agintzen die.

Auzitegi Konstituzionalak ere, besteak beste, bere Epai 53/1986, maiatzaren 5eko eta 27/1989. otsailaren 3koetan (BOE zk. 120, maiatzaren 20ko eta 50, otsailaren 28koa, hurrenez hurren), azpimarratua du garrantzi hori oinarriko eskubideak ukitzen dituzten egintza administratiboetan.

(73) FERNANDO PABLO, aip. ob., o. 234 eta h.

(74) Helegite arrunta edo haren orde, 107.2. esana jarraituz, ezarritako helegitea ebazten dutenak, nagusi jerarkikorik ez duen organo administratiboak emandako ebazpenak (Legeren batek aurkako aurreikuspenik ez badu, behintzat) eta lege edo erregelamenduren batek ondorio hori aurrekusi dion suposamenduan sartzen den ebazpena. Zehaztapen bat egitea komenigarria dirudi hemen, izan ere, 109. artikulua ebazpenak soilik aipatu baititu. Gure ustetan, "ebazpen" hitzaren barruan sarturik geratu behar dute 107.1 artikulua aurreikusiriko izapide-egintzak ere (hau da, prozedura jarraitzen uzten ez duten eta defentsa gabezia sor dezaketena).

(75) Xedapen honek Estatuaren Administrazio Orokorren eremurako ezarri du nagusi jerarkikorik ez duten organoak zeintzuk diren: Ministrari Kontseilua eta bere Batzorde Deleatuak, Ministriari beraien Ministraritari esleituriko eskuduntzak egikaritzen ari direnean) eta Idazkariordeak eta Zuzendari orokorrak (pertsonek buruzko gaiak direnean).

administratiboa tarteratu beharko da; bestela, berriz, zuzenean kontentzioso-administratibora (76) joateko bidea irekia geratuko da.

Aurretiazko Jurisprudenziak elementu hau ez agertzeari ez zion balio gabezia ondorioz eranstean, ondoren datorren elementua (hau da tarteratzeko zeuden helegite egokiak) behar bezala azalduz gero (77). Orain ere irizpide bera jarraitzea ez dirudi kaltegarria izan daitekeenik (78).

II.2.2.2.C. Helegite egokiak

Beraz, helegite administratibo (79) edo kontentzioso-administratiboa tarteratzea, kasu konkretu horretan egokia zer den argitu beharko da jakinarazpena egiterakoan. Kontutan izan behar da Administrazioarekiko dituen harremanetarako administratuak ez duela zertan aholkulari juridikorik erabilirik derrigorrez. Egia da, Kode Zibilaren 6.1 artikulua jarraiki, legea ez ezagutzeak ez duela betetzeaz salbuesten, baina ordenamendu administratiboak dituen berezitasunak kontutan izanik (batez ere, Administrazioari eman ohi dizkion pribilegioak, eta administratuarekiko epe hain murrizak) justifikatzen da galdekizun hori (80). Administrazioak zuzen erakutsi behar dizkio interesdunari egokitzen zaizkion aurkatze bideak. Jurisprudenziak hori argi utzia du: ez zegokion helegitea tarteratzera bultzatu zuen errore administratiboak interesdunik ezin du kaltetu (81).

II.2.2.2.d. Zein organoren aurrean aurkeztu behar diren aipatu helegiteak

Helegitea administratiboa denean organo hori administratiboa izango da, noski; kontentzioso-administratiboa bada, auzitegia. Azken suposamendu honetan, eskuduntza objektiboa eta lurraldetarra dituen zehaztu

(76) Aurretik aurkatu nahi den egintza emandako organoari berri eman beharko zaio, 110.3 artikulua eskatu bezala.

(77) Dena den, Auzitegi Gorenaren 1978. otsailaren 6ko (Ar. 576) eta 1980. irailaren 30eko (Ar. 3255) Epaien esanetan, ez dago jakinarazpenean legearen formula hitzez-hitz zertan agertarazi beharrik (ez da formula hori "sakramental"tzat hartzen).

(78) GARRIDO FALLA eta FERNANDEZ PASTRANA, aip. ob., o. 126.

(79) Lege berriak, aurrekorekin zeuden altxada eta birjarpeneak kendu eta helegite administratibo arrunt bakarra ezarri du 107. artikuluan, nagusi jerarkikoaren aurrean bide administratiborik amaitzen ez duten egintza eta ebazpenak aurkatzeko.

(80) Ik. Auzitegi Gorenaren 1980. martxoaren 1eko (Ar. 1060) Epaia.

(81) Zerrenda luze baten ordezkari izan daitezke, besteak beste, Auzitegi Gorenaren 1992. Maiatzaren 19ko, ekainaren 2ko, irailaren 29ko eta azarearen 23ko Epaiak (Ar. 4153,4813, 7373 eta 8687, hurrenez hurren).

beharko da jakinarazpenean. Galdekizun hau aurreko legean ere ezartzen zenez, izan da aplikatu duen ebazpen judizialik (82).

Honi dagokionean, Jurisdikzio Kontentzioso-Administratiboaren Legeak bere 11.2. artikulua helegilearen esku utzi duen aukera kontutan izanik (83), nahiz eta zenbaitek (84) jakinarazten den egintza edo ebazpena eman den tokia bere mugapean duen Justizia Auzitegi Nagusiaren Kontentzioso Administratiboko Sala agertaraztearekin nahikoa dela uste izan, joera hori jakinaraziaren kaltetan izan daiteke. Begibistakoa dirudi bere Elkarte Autonomoan helegitea tarteratu ahal izan eta, Administrazioaren adierazpenen ondorioz, beste Elkarte Autonomo batetan tarteratu beharra izateak zama gehigarriak sor diezazkiokeela pertsona horri (85).

II.2.2.2.e. Helegiteak tarteratzeko dagoen epea

Aurrekoen moduan, Lege zaharrean ere agertzen zen eskakizun hau (86), Lege berriak aurreikusiriko helegite administratibo arrunt bakarra tarteratzeko epea hilabetekoa da (114.2. artikulua). Epe hori datatik datara zenbatu beharko da jakinarazpena egin den unea erreferentziazat hartuz (48 artikulua 2. eta 4. zerbakiak elkarrekin harremanetan jarririk) (87).

Kontentzioso-administratiboan aurretik genuen bi hilabeteko epeak jarraituko du eta hura zenbatzeko hartuko den erreferentzia jakinarazpena egin eta hurrengo eguna izango da (Jurisdikzio Kontentzioso-Administratiboaren 58.artikulua 1. eta 3. zerbakietatik eratorrikoenez) (88). Ustezko

(82) Hor ditugu erakusgarri moduan Auzitegi Gorenaren 1988. ekainaren 8ko (Ar. 5071) 1990 otsailaren 27ko (Ar. 1520) eta 1992. maiatzaren 15eko (Ar. 4148) Epaiak.

(83) Eskuduntza lurraldetarra Estatu osora zabaldua izanik, Ministrariaren azpitik dauden organo aministratiboek personal, jabego berezi edota nahitaezko desjabetzpen gaietan emandako egintza edo ebazpenak helegiterakoan, bere bizilekuari dagokion Justizia Auzitegi Nagusiaren Kontentzioso Administratiboko Salaren aurrean edo helegin nahi duen egintza emandako lekuari dagokionarenean tarteratzea aukera dezake.

(84) MADRIGAL GARCÍA, aip. ob., o. 235.

(85) Beste Justizia Auzitegi Nagusi horren mugapean egikaritu ahal duen Prokuradore eta/edo Abokatua aurkitu beharko d(it)u...

(86) Ik. Auzitegi Gorenaren 1987. ekainaren 29ko Epaia (Ar. 6590).

(87) Epea zenbatzeko irizpideari buruz Jurisprudenzia ugarik esana du, aurreko Legearen 60.2. artikulua kontutan izanik, epeak hilabeteetan zenbatzen direnean, dagokion hilabetean, jakinarazpen edo argitalpena egin izan den egunaren zenbaki bera duen egunean amaituko dela epe hori [Auzitegi Gorenaren 1990. urriaren 30eko Autoa (Ar. 8432)]. Hori dela eta, epearen lehen eguna jakinarazpena egindakoaren hurrengo izango da (*dies a quo non computatur in termino* printzipioa aplikatuz) eta azkenekoa, berriz, hurrengo hilabetean jakinarazpena egindako egunaren ordinal berdina duena. Ho-rreala baieztatute, besteak beste, Auzitegi Gorenaren 1990. urtarrilaren 22ko (Ar. 56) eta 1992. abenduaren 21eko (Ar. 9765) Epaiek, aurretik Auzitegi Konstituzionalak bere Sententzia 32/1989, otsailaren 13koan (BOE zk. 52, martxoaren 2koa) berretsiriko doktrina beretuz.

(88) Helegite administratiboetan lortu den irtenbide berbera aplikatu du hemen ere Jurisprudenzia [Auzitegi Gorenaren 1993. apirilaren 4ko Autoa eta otsailaren 8ko eta apirilaren 14ko eta 27ko Epaiak (Ar. 2680, 666, 3113 eta 3125, hurrenez hurren)]; epeari hasera jakinarazpena egin den egunaren hurrengoan emango zaio eta, bukaera, berriz, dagokion hilabetean, jakinarazpena egin den egun horren zenbaki bera duenean.

egintzaren suposamendua bada, ziurtagiria hartu eta hurrengo egunetik hasiko da zenbaketa, eta ziurtagiria emateko epean ez bada eman, epe hori amaitu eta hurrengo egunetik (89).

Arau bereziek epe ezberdinak ezarriko balituzte, eta egunetan ezarri ere, hauek egun gai edo abilak direla ulertuko da (igande eta jai deklaratu izanak at geratuko dira, printzipioz) eta zenbaketa jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hasi beharko da (Lege berriaren 48. artikulua 1. eta 4. zenbakien arabera).

Jakinarazpen-mezuaren hiru azken elementu hauek 89.3. artikulua ebazpen administratiboaren edukiekin eskatzen ditu. Ebazpen administratiboaren testu osoa eduki behar badu jakinarazpenak, 89.3. artikulua horren arabera testu oso horretan sartuko liratekeela kontutan izanik, soberan egongo lirateke jakinarazpenekiko ezarri diren eskakizun horiek. Edonola ere, aurretik ere jakinarazpen mezuari eskatu izan zaizkio, eta ez egintza berari, gogoratuko denez (aurreko Legearen 79.2. artikulua, zehatzago esateko) (90).

Puntu honekin amaitzeko, azken ñabardura bat besterik ez. Izan ere, aurretik aipatua dugun Eskumen Kontentzioso-Administratiboaren Legearen 64. artikulua aurreikusiriko jakinarazpenak ez du espedientea Auzitegira bidaltzeko ebazpenaren aurkako helegiteen berri eman beharrik, Auzitegiaren ebazpen baten exekuzio soila bait da (91).

II.2.3. Noiz, non, nola: elementu zirkunstantzialak

Elementu subjektibo eta objektiboak ukitu ondoren, jakinarazi aditzaren inguruan kokatu ohi diren elementu zirkunstantzialak xehatzera igaro gaitzen.

Elementu horiek, zehatz-mehatz, denbora, lekua eta modua izango ditugu.

II.2.3.1. Denbora

Ezagutarazi behar den egintza xedatu eta hamar eguneko epean jakinarazpena kurtsatu beharra dauka Administrazioak (92). Hala dio Lege berriaren 58.2. artikulua. Nabari da, beraz, aurreko Legeak 79.2. artikulua

(89) GARCÍA DE ENTERRIA eta FERNANDEZ RODRIGUEZ-en ustetan oraindik mantendu beharko litzateke Jurisdikzio Kontentzioso-Administratiboaren legean isiltasun-suposamenduetarako aurreikusia zen urtebeteko epea, horretarako tutela judicial eraginkorraren eskubidearen aldekoago den interpretazioa hartzea ezartzen duen printzipio konstituzionala ahoratuz (*Curso...*, Tomo II, aip. ob. 615-616).

(90) MARTIN REBOLLO-ren ustetan 89.3. artikulua horretan eskakizun hauei buruz dauden erreferentziak soberan daude, ez baitira egintzak zehatztasun horiek (ukitutako partikularra bermatzeko mekanismoak direlarik) izan behar dituztenak, baizik eta jakinarazpenak, haien berri emateko bide izaki (aip. ob., o. 180).

(91) Azken datu hau, bai, agertu beharko da eta, eduki arruntaz gain, jakinarazpenari epaitzea egiteko behar diren elementuak ere gehitu beharko zaizkio (XIOL RÍOS, aip. ob., o. 98).

(92) Aipatu zaharra ez dugun Eskumen Kontentzioso-Administratiboko Legearen 64. artikulua berriak jakinarazpen administratibo arruntetik lehentasuna eman zien bertan aurreikusirikoei, berehala egin behar zirela aginduz (Ikus, XIOL RÍOS, aip. ob., o. 97). Prozedura Administratibo Amankomuna arautu duen Lege berriarekin ere badirudi gauzak berdin jarraitzeko eragozpenik ez dagoela.

epe berdinean jakinarazpena benetan burutzeko ezartzen zuen beharra, zerbait aldatua geratu dela. Orain epe horretan kurtsatzea, hau da martxan jartzea, nahikoa da Administrazioak bere eginbeharra egoki betetzeko. Ez du axolarik interesduna jakinaren gainean geldituko den uneak. Hau ziurtasun eza sor dezaken elementua izan daiteke, doktrinak egoki adierazi duen bezala (93). Hain zuzen ere, ustezko egintzen arloan izango du jokorik gehien ziurtasun gabezia posibilitate horrek.

Normalean, halere, epea ez errespetatzeak ez du jakinarazpenik balio gabetuko beste eskubideren bat ez bada era berean urratu (94). Izan ere, 63.3. artikulua berriak (Prozedura Administratiboko Lege zaharraren 49. artikulua bidea jarraituz) epeak ez betetzeari balio gabezia ez dakarren irregulartasun izaera eman baitio. Kasu horretan gerta daitekeena Administrazioaren funtzionamendu anormala egon delako ondare erantzukizuna (95) sorraraztea da, interesdunari kalterik eragin badio, eta atzerapena funtzionariaren erruz gertatua dela frogatuko balitz, Administrazioak errepikatu ahal izango lioke.

Argi geratu behar duena, behintzat, hau da: helburukoak edo egitatezko ordezkariak agente jakinarazlearengandik hartu duen egunarena izango dela jakinarazpenaren data, jada ikusia dugunez, garrantzitsua gertatuko baita helegiteko epeak zenbatzerakoan.

II.2.3.2. Lekua

Arazo honi Lege berriaren 59.2. artikulua Prozedura-Lege zaharrak aurreikusia zuen erantzunarengandik zerbait urrundu den irizpidea jarraitu du. Horrela azpimarratua geratu da Zio-Azalpenean, jada esana dugun moduan (bizilekuaren eksklusibotasunak zekarren mugapena gainditu omen da, bere esanetan).

Interesdunak eskaturik hasi diren prozeduretan, arau orokorra, jakinarazpena hark horretarako seinalatua duen lekuan egitea da. Horretan ez da

(93) MARTIN REBOLLO, aip. ob., o. 180-181.

(94) Hala uste izan du Auzitegi Gorenaren Jurisprudentziak, batez ere defentsa gabeziaren suposa mendua kontutan izanik. 1990. abenduaren 21eko (Ar. 10051), 1992. maiatzaren 27ko (Ar. 5341) eta 1993. maiatzaren 18ko (Ar. 3498) Epaiak ditugu lekuko. Azkena aipaturik dugun Epaiak epea ezartzen duen araua "goresgarri"tzat izan duen arren, ez du ikusi funtsezko akatsik ez errespetatzean.

Dena den, esan bezala, zenbait kasutan epea ez betetzeak egintzaren balio gabezia sor dezake beste eskubideren bat urratua izan bada jarduera horrekin, Zehapen prozeduraren barruan, esate baterako, epeak gainditzeak defentsa gabezia ekar dezake berekin eta Lege berriaren horretarako bidea eman dezake aurretik aipatua dugun ziurtasun gabezia posibilitate horrek (adibidez, jakinarazpena epe barruan martxan jarri izanik, interesduna epez kanpo geratu bada jakinaren gainean...).

(95) Lege berriaren 139. eta hurrengo artikuluetan arautua.

aldaketarik izan aurreko Legearen 80.1. artikuluekiko (96). Prozedura mota honetan interesdunak bere hasiera-eskarian zehaztu beharko du leku hori, Lege berriaren 70.1.(a) artikulua dioenez (97). Seinalaturiko lekua bere bizilekua bada, bertan dagoen edonork hartu ahal izango du jakinarazpena, esana den moduan. Beste edozein lekutan egingo balitz, nahiz eta interesdunak aurretik seinalatua izan, interesdun horrek edo bere ordezkariak hartu beharko du jakinarazpena egokia izateko (98).

Interesdunak seinalatua zuen leku horretan jakinarazpena egiten saiatu arren, arrazoiren batengatik ez burutu ahal izatea posible da. Kasu honetarako Legeak prestatu duen erantzuna da berrikuntza dakarrena. Dakigunez, aurreko 80.1. artikulua interesdun horren bizilekua jartzen zuen ordezkari lekutzat. Orain, berriz, xede horretarako (hau da, jakinarazpena behar bezala egiteko) egokia den edozein lekutan egin ahal izango da. Pentsa daiteke leku hori, adibidez, bere lantokia izan daitekeela, Administrazioak ezagutzen badu. Dena den, kontzeptu juridiko zehaztugabe baten aurrean gaude (99) eta kasuz kasu erabaki beharko da zein den bere esanahia.

Prozedura ofizios hasia denerako ez du legeak irizpide berezirik eman. Horregatik, interesdunaren bizilekuan egin beharko dela esan da (100). Dena den, eta esku artean darabilgun artikuluen idazkera kontutan izanik, badirudi suposamendu honetan ere jakinarazpena egiteko egokia den beste edozein lekutan ere egin izango dela helburukoak hartzeari uko egiten ez badiu(101).

Esan dugunaren arabera, ofizios hasitako prozeduretan, eta interesdunaren eskariz hasitakoetan ere bai (baldin eta ez badu bere eskarian jakinarazpena egiteko lekurik ez bere bizilekurik argitu) jakinarazpen hori non egin behar den ez jakitea gerta dakiok Administrazioari (suposamendu hori kontutan izan du 59.4. artikulua, eta geroxeago ikusiko dugunez, ediktu bidezko jakinarazpena proposatuz gainera). Problema hori aurreikusirik, eta ediktu bidezko jakinarazpenari itzuri egin nahian, Talde Parlamentari Kataluniarrak

(96) Artikulu haren babesean 1991. abenduaren 11ko Epai batean Auzitegi Gorenak pertsona juridiko bati eginiko jakinarazpena baliogabeterik utzi zuen, bere akatsetariko bat bizileku soziala ez zen beste toki batean (beste hiri batean pertsona juridiko horrek zuen Agentzian) egina izan zelako hau (dena den, esan bezala, balio gabedia arrazoi gehiago ere baziren batera). 1987. azaroaren 4ko beste Epai batean (Ar. 8774), halere, lekuaren akatsa gainditu egin zen defentsa gabeziarik sortu ez zelako.

(97) Helegite administratibo arrunta tarteratzeko aurreikuspen bera errepikatu du 110.1.(a) artikulua.

(98) Paratzaile (edo aparejadore) bati zuzendua izan eta harekin lan egiten zuen delineatzaile batek jakinarazpena seinalaturiko lekuan ez, baizik eta beste batean, hartu izanik, 1987. martxoaren 27ko Epaiak (Ar. 2097) baliogabetzat hartu zuen, nahiz eta paratzailearen eta delineatzailearen artean menpekotasun harreman bat egon zitekeela onartu.

(99) MARTIN REBOLLO, aip. ob., o. 184.

(100) PARADA VÁZQUEZ, aip. ob., o. 139.

(101) Irizpide hau du MADRIGAL GARCIAK ere (aip. ob., o. 237).

leku posibleen mailaketa bat egiteko proposamena egin zuen Kongresu nahiz Senatu aurrean aurkezturiko Emendakinetan (102) (azken irizpide moduan, interesduna aurkitu zitekeen edozein leku ezarriz), baina ez zuen onarpenik izan.

II.2.3.3. Modua

Arlo honetan gertaturiko aldaketek ere izan dute aipamenik Zio-Azalpenean. Komunikabide-mailan hain nabariak diren aurrerapenen oihartzuna lege berriraino heldu delarik, ohizkoak izan diren jakinarazpen bideei ateak ireki zaizkie, jarduera mota hau erraztu nahian, beti ere benetakotasunak kalterik jasaten ez duen bitartean.

Ildo berea jarraitu du 45. artikuluko berriak ere. Bere lehen zenbakiak Administrazio Publikoari elektronikoa, informatika eta telematikak (103) ematen dituzten teknika eta bideak beraien jarduera eta eskuduntza egikaritzan erabiltzeko agindua ezarri die (erabilpen horren muga, artikuluko berak ezarria, Konstituzio eta Legearen esana errespetatzea izango litzateke, noski). Bigarrenak, berriz, guretzat interesa duen zehaztasuna dakar: hiritarrak Administrazio Publikoekin izateko harremanak bide tekniko horiek erabiliz gara daitezke, Administrazioek dituzten baliabideekin bat datozenean, beti ere prozedura bakoitzean aurreikusiriko berme eta baldintzak errespetatuz gero. Eta, bosgarren zenbakiak, azkenik, horrelako bideak erabiliz Administra zioak egindako dokumentuak jatorrizkoaren baliozkotasun eta eraginkortasuna izango dutela ezarri du, bere benetakotasun, osotasun, kontserbazio, eta, bere kasuan, interesatuaren harpena (gu une honetan kezkatzen gaituena, hain zuzen ere) bermatuak geratu badira, Legeak eskaturiko berme eta baldintzekin batera. Hortik eratorri daiteke, beraz, euskarri elektroniko, informatiko edo telematikoa duten egintza administratiboak aurrerantzean posibleak direla, eta ondorioz, haien jakinarazpena ere bide horiek erabiliz egin beharko dela, bestelako erantzun batek egintzaren euskarria aldatu beharra suposatuko lukeelarik. Dena den, prozedura horiek behar bezala aratuak izan beharko dira, interesdunek dituzten eskubideak inolako urraperik jasan ez dezaten.

Jakinarazpenen gai konkretuan, irizpide horiek Lege berriaren 59.1. artikuluko bideekiko egin duen araupenean proiektatu beharko dira nolabait. Bere idazkeraren arabera, artikuluko hau ez da aurreko Legearen 80.1. artikulukoarengandik

(102) 302. Emendakina Kongresuan eta 283. Emendakina Senatuan.

(103) Artikulukoaren desegokitasuna nabarmendu du MADRIGAL GARCIA-k (aip. ob., o. 237) bide elektroniko, informatiko eta telematikoak, ikuspuntu zientifiko batetatik begiraturaz gero, kontzeptu ezberdin bezala kontrajarriez direla esanez. SANTAMARÍA PASTOR-ek, 45. artikuluko horrexen bigarren zenbakia aztertzerakoan, eta adjektibo beroiek azaltzen direla ikusirik, esplikazina deritzo esanahi ia baterakideko hitzak horrela pilatzeari.

gehiegi urrundu (104). Orain ere, jakinarazpena egiteko edozein bidek balio du, interesdunak edo bere ordezkariak (stricto sensu edo egitatezko, bietatik edozeinek) hartu izana (eta, horrekin batera, jakinaraziriko egintzaren data, identitate eta edukia) jasorik geratzea permititzen badu (105).

Aipatuak ditugun bide berri horien harian, lehenik burura etor daitezkeen artean ordenagailuak (106) edota faxa ditugu. Inolako oztoporik ez da ikusten bide horiek interesdunaren aldeko egintzak jakinarazteko, izan ere jakinarazpena erraztuko luketenez, egintza administratibo aldeko horren eraginkortasuna aurreratzeko balio izanik, interesdunak jakinarazpen hori eragozteko arrazoirik ez baitu edukiko. Arazo gehiago planteatu daitezke jakinarazi nahi den egintza interesdunaren aurkakoa denean.

Interesdunak eskaturik hasitako prozeduretan, hark bere eskarian jarri dezake horietarikoren bat jakinarazpenak egiteko lehentasuna izango duen bide bezala. Horretarako eskubidea ematen dio 70.1.(a) artikulua, aipaturiko 45.2rekin harremanetan jarri. Suposamendu horretan, zeharo egokia izango da bide horiek erabiliz eginikoa.

Ofizios hasitako prozeduretan (eta interesdunak proposaturiko biderik ez dagoelarik), funtzionari batek egin badu jakinarazpena bide horietarikoren bat erabiliz, funtzionarioek fedemateko duten ahalmena kontutan izanik, hauek fedeman ahal izango dute benetan interesdunak edo bere ordezkariak hartua dutela, hauek fax edo ordenagailu bidezko beste mezu batekin horrela adieraziz erantzuten badiote. Bestela, harpen hori benetan gertatu dela 59.1 artikulua eskatu bezala kreditatzeak arazoak ekar ditzake. Edonola ere, bide hauetatik jakinarazpenak egin ahal izateko posibilitateari ez zaio lehen unetik atzerik eman behar. Prozedura-motak arautzean aurreikusi beharko dira Administrazioak 59.1. artikulua eskakizunei erantzuna emateko errespetatu beharko dituen baldintzak.

Esan bezala, bestelakoan ohizko bideak geratuko dira:

* *Eskura* entrega daiteke, hasteko. Hori jakinarazpena egin behar duen organoaren bulegoan egin ahal da, baina baita interesdunaren bizilekuan edo beste nonbaiten ere (interesdunak eskatu duenaren arabera).

Kasu hauetan, organoari atxikirik dagoen funtzionarioen batek egin dezake, baina Administrazioak beste bide batzuk ere erabil ditzake jakinarazpena eskura entregatzeko eginkizun horretarako: hala nola, mezulari-, posta- edo telegrama-zerbitzuak.

(104) Zehatzak izateko, azken honek bide horietarikoren zenbaitekiko adibide gisa egin zuen aipamena (v. gr., ofizio, eskutitz, telegrama) ezabatu da oraingoan.

(105) Bere bigarren lerroaldeak zehaztu duenez, egindako jakinarazpenaren akreditazioa espedienteari gehitu beharko zaio.

(106) Hauekiko baldintza tekniko bat azpimarratu behar da: jakinarazpena ordenagailu bidez egin ahalizateko, Administrazioaren eta interesdunaren ordenagailua bateragarriak izan beharko dute.

Mezularien zerbitzuak erabili ahal izateko aurretik horrelako enpresaren batekin kontratua sinatu beharko du Administrazioak (107).

Posta-zerbitzuaren bitartez egindakoan, ziurtaturiko karta erabiliko da jakinarazpena eskura emateko, hartu izanaren adierazpenarekin, nahiz hura gabe(108). Adierazpen hori egin badu hartzaileak, Posta-zerbitzuak jakinaraziriko egintza administratiboa emandako organoari igorri beharko dio, espedientean jaso dezan (109). Antzeko prozedura erabiliko dute Telegrafo-zerbitzuko enplegatuek ere telegramaz egindako jakinarazpenetan (110).

Oztopoa izan ohi da, aipaturiko azken hiru suposamendu hauetan, agente jakinarazleak kualifikaziorik ez izatea (nahiz eta posta edo telegrafo zerbitzua erabilitakoan, zenbait kasutan funtzionaria izango den agente jakinarazlea), zeren eta, horren ondorioz, bide hauek erabiliz egindako jakinarazpenak askotan akasduak gertatzen baitira.

* *Beste zenbait* era baditu Administrazioak jakinarazpena (nahiz eta eskura ez) egiteko, horretarako batzutan aipatuak ditugun zerbitzuak ere erabili ahal izango dituelarik. Dena den, ondoren esango ditugun moduak interesdunak berak horrela eskatutakoan, edo interesdun horren aldeko egintzak jakinarazi nahi direnean soilik dute lekua. Izan ere, zalantzak sortu baitaitezke 59.1. artikulua eskatzen dituen baldintzak erabat beteko direnari buruz.

Posta-zerbitzuaren bidez, beraz, karta arruntaz ere eman diezaiokie Administrazioak interesdunari egintzaren berri, baita posta-kutxatila bidez ere (111). Beste bide batzuk telexa edo telefonoa izan daitezke. Azken bide honi Auzitegi Gorenak (112) muzin egin dio, harrera zalantzarik gabe jasoa geratzea jakinarazpenaren baldintza dela gogoratuz (esan bezala, 59.1. artikuluko baldintza). Dena den, egintza interesdun horren aldekoa bada edota interesdun horrexek eskatua badu bide horiek erabiliz egiteko, ikuspuntua aldatua geratuko da eta suposamendu horietan onargarri dela esan daiteke(113).

(107) Dekretu 1005/1974, apirilaren 4ko bere 3.(a) artikuluan baimentzen du posibilitate hori. Izan ere, artikulua horrek dioenez, laguntza-kontratuak zerbitzu osagarriak izan ditzakete gaitzat, besteak beste, jakinarazpena materialki egitea.

(108) Auzitegi Gorenaren esanetan Posta-Administrazioaren eskuetan egongo den posta-entrega liburuxkan agertzen denari kasu egin beharko zaio jakinarazpenaren benetako baldintzak ezagutu ahal izateko [1985. abenduaren 9ko (Ar. 6382) eta 1989. urriaren 3ko (Ar. 7210) Epaiak].

(109) Posta-zerbitzua arautu duen Erregelamenduak (1964. maiatzaren 14ko Dekretuak ezarriak ditu jakinarazpen-mota hau egiteko bete behar diren baldintzak.

(110) Horrelakoei buruz, Auzitegi Gorenak esana du [1991. abenduaren 5eko Epaia (Ar. 9282)] baliozkotzat hartzeko, ezin zaizkiela jakinarazpenen baldintza arruntak oso-osorik eskatu.

(111) Kontrako iritzia agertu du MADRIGAL GARCÍA, aip. ob., o. 243.

(112) 1990. ekainaren 11ko Epaian (Ar. 5386).

(113) Larritasun handiagoko suposamenduetan onartu izan da jakinarazpenak baldintza horiek bete beharrik ez izatea. Izan ere, ordena publikoko gaian, agente soil batek berehala exekutatu daitekeen egintza administratiboa eman duenean, exekuzio horri "egintza erabatekoen bidezko jakinarazpen" maila esleitu baitzaio (FERNANDEZ RODRÍGUEZ, T. R., "Las medidas de policía: su exteriorización e impugnación", *Revista de Administración Pública*, zk. 61, 1971, o. 139).

* *Iragarpenak* ere erabil ditzake Administrazioak (interesdunaren azken bizilekuko Udalaren Ediktu-taulan, eta Estatuko Buletin Ofizialean, Elkarte Autonomoaren, jakinarazi beharreko egintza zein Administrazioetatik datorren eta eman duen organoaren lurralde-eremua zein den kontutan izanik) zenbait aurrezpostu betetzen badira, Lege berriaren 59.4. artikulua, bere lehen leerroaldean aurreko Legearen 80.3. artikulua eguneratuz, horrela baimendua du eta.

Aurrezpostu horiek zeintzuk dira? Prozeduran interesdun diren pertsonak ezezagunak izatea, jakinarazpen-leku edo -bidea ez ezagutzea (114), edota, jakinarazpena egiten saiatu arren, ezinezkoa izatea.

Ezezagunak badira interesdunak ezinezkoa izango da, jakina, beraien azken bizilekuko Udalaren Ediktu-taulan egitea. Beraz, nahikoa izango da egintza eman duen Administrazioari dagokion Buletin Ofizialean sartzea iragarkia. Dena den, puntu honetan ere legeak argi utzi ez duen arazotxo bat ageri da. Izan ere, iragarki hori zein Buletinetan atera behar den irizpidea ez baita bakarra, bikoitza baizik: egintza eman duen organoa zein Administrazioetako den ikusi beharko dugu, alde batetik, eta bere eskuduntza lurraldetarra noraino zabaldua dagoen, bestetik. Organoaren eskuduntza lurraldetarra eta berak osatzen duen Administrazioari dagokion hedadura lurraldetarra bat badatoz, ez da arazorik gertatuko, baina horrela ez bada, zer egin behar da, Administrazio horren Buletin Ofizialean azaldu, organoaren eskuduntza lurraldetarra zabaltzen den eremu bereko Buletin-Ofizialean, edo bietan? Arazoa hor dago. Estatuaren Administrazioeko organo asko eta askok beraien eskuduntza lurraldetarra Elkarte Autonomo edo Probintzia (hemen Lurralde Historiko) baten lurraldera mugatzen (edo zabaltzen, ikuspegia zein denaren arabera) dute, eta beste askok berriz, Elkarte Autonomo bat baino gehiagotara, Estatu osoko lurraldera zabaltzen gabe; berdin Probintzia-Lurralde Historiko bat baino gehiagotara zabaldurik, beraien eskuduntzak Elkarte Autonomoko lurralde osoa besarkatzen ez duenean. Suposamendu honetan, eta jakinarazpen kontutan beti gogoan behar dena interesdunaren bermea izanik, bai organoak osatzen duen Administrazioaren Buletinean, baita bere eskuduntza zabaltzen den lurraldeetako Administrazioen Buletinetan ere iragarzea izango litzateke irtenbiderik zuzenena.

Jakinarazpena egiteko lekua ez bada ezaguna ere, ikusi dugunez, iragarki bidez eraman beharko da jarduera hori. Interesduna ezaguna izan

(114) Eskakizun hauek direla-eta, gogora dezagun Auzitegi Gorenaren 1992. irailaren 23ko Epaia (Ar. 6978). Bertan, iragarpenen bidea erabili ahal izateko, jakinarazia izan behar den pertsonaren nortasuna edo bizilekua ezezagunak badira, Administrazioari bilatzen saiatzea eskatzen zaio eta ezinezkotasan praktikoa benetan justifikatzea.

arren, eskarian jakinarazpen lekurik agertu ez duenean, edota prozedura ofizioz nahiz interesdunaren eskariz hasirik, interesdun horren bizilekurik, lantokirik, edo aurki daiteken beste edozein lekurik ezagutzen ez denean jo ahal izango da iragarpenetara.

Jakinarazpena egiten saiatu arren, ezin izan badu Administrazioak, iragarkiak ditu bere eskuetan. Gerta daiteke interesdunak jakinarazpen bide eta lekua aukeratu arren, bide hori erabiliz edo leku horretan jakinarazpena egiterik ez lortzea (interesdunaren eta Administrazioaren ordenagailuak bateraezinak direlako edota fax, ordenagailu edo telexak, kasuan kasu, ez duelako funtzionatzen; posta aukeratu duelarik, bere bizilekua ezezaguna delako edo inor ez dagoelako...). Dena den, iragarkien bidea sartu ahal izateko beharrezkoa dirudi, horrez gain, Administrazioak beste biderik erabili ezina eskatzea ere (adibidez, bizilekurik ere ez duelako ezagutzen...).

Suposamendu honetan sartu beharko da hartzaile-gaiak jakinarazpena jasotzeko proposamenari eman diezaiokeen ezetza ere (115). Interesdunak eta bere ordezkariak (ofizial nahiz egitatezkoak) ez du jakinarazpena hartzeko obligaziorik eta hartu nahi ez den suposturako 59.3. artikulua, irtenbide erraz bat ideiatu du (116): espedientean jasoaraziko da, jakinarazpen saiakeraren inguruabarrak argi utziz eta, izapidea egintzat harturik, prozedurak aurrera jarraituko du (117). Horrexegatik, prozedurak aurrera jarraitu beharko duelako, ez da soberan egongo egintzaren iragarkia ateratzea.

59.4. artikulua aipatzen digun hirugarren baldintzarekiko aipamentxoren bat egin beharko dugu. Baldintza hori jakinarazpen bidea ez ezagutzea da, esana dugunez. Administrazioak ezagutzen dituen jakinarazpena egiteko dituen bideak, artikulua esanahia beste alde batetik helduta interpretatu beharko da. Interesdunak aukeraturiko bidetik ezinezkoa denerako utzia izan den arren (118), esan dugun bezala, egokiagoa dirudi kasu non aurretik aipatua dugun baldintzaren barruan (jakinarazpena egiten saiatu eta ezin izanarenean) sartzea. Beraz, badihala soberako aipamena egin duela hemen Lege berriak.

Puntu honekin bukatzeko, eskuartean dugun artikulua bigarren lerroaldeak iragarkia jartzeko beste leku bat ere badu: dagokion Kontsulatu edo Enbaxadako Sail Kontsularreko iragarki taula, baldin eta jakinarazia

(115) Aurretiaz egon den Jurisprudentiak, gai honetan izan den pikareska kontutan izanik, horrelakorik gertatu eta gero defentsa gabezia alegatu ahal izatea eragotzi du [Ikus Auzitegi Gorenaren 1987 apirilaren 3ko (Ar. 2270) eta 1992. apirilaren 27ko (Ar. 4112) Epaiak].

(116) Aurreko Legeak ez zuenez ezer aurreikusi, doktrinak bi testigu gairen sinadurak eskatzen zituen orain arte, 1889.go Oinarri-Legeak egiten zuen bezala.

(117) GARRIDO FALLA eta FERNANDEZ PASTRANA-k egokitzen hartu dute erregela hori, Administrazioarekiko maulan ematen baitira horrelako uko-egiteak asko eta askotan, baina Posta zerbitzua erabiliz egindako jakinarazpenetan betetzeko zaila dela uste izan dute (aip. ob., o. 129).

(118) MADRIGAL GARCÍA, aip. ob., o. 244.

izan behar den pertsonaren azken bizileku ezaguna atzerrian kokaturik badago.

* *Bestelako bide osagarriak* ere aurreikusi ditu 59.4. artikulua azken lerroaldeak. Nahiz eta orain artean agertutako bideak erabiliz jakinarazi beharra duen Administrazioak derrigorrez, bide horiek ez dute beraiekin batera beste batzuk ere erabiltzerik eragozten, interesdunaren bermea kontutan izanik (119). Komunikabideak dira arlo honetan jokorik gehien izan dezaketenak (egunkari edo aldizkari, telebista, irrati...), baina horiekin batera pregoiak edo bandoak komenigarriak gerta daitezke Udalerrietan.

Bide osagarrietaz ari garelarik, *argitalpena* ere erabil daiteke jakinarazpenaren gehigarri edo ordezeko zenbait kasutan. Hala dio 59.5. artikulua, baina horretarako jakinarazpenari eduki aldetik eskatzen zaizkionak (120) bete beharko ditu (60.2 artikulua). Kasu guzti hauek duten datu amankomuna interesdun multzoa egotea da. Argitalpen gehigarri edo osagarria multzo edo talde horretako interesdun bakar bati jakinarazpena egina zaiolarik (121), guztien ezagutzara heltzeko aski ez dela uste denean erabiliko da. Eta ordezekoari dagokionez, bi egoeratan argitaratu ahal izango du Administrazioak egintza jakinarazi beharrean: alde batetik, egintzaren helburuko zehaztugabeko pertsona kopuru bat denean (122), bestetik, eta aurrekoaren mota besterik ez bada ere, egintza horrek edonolako hautespen- edo lehia-prozedura osatzen duenean (bigarren honetan, prozeduraren deialdia egiterakoan argi geratu beharko du zein iragarki taula edo komunikabidetan egingo diren ondorengo argitalpenak).

Azkenik, ezin dugu aipamenik gabe utzi Lege berriak bere 61. artikuluan sartu duen berriemate-tresna berezia. Organo eskudunaren ustez egintza bat iragarki bidez jakinarazteak edo argitarazteak eskubide edo interes legitimoak kaltetu baditzake, dagokion Buletin Ofizialean egintzari buruzko zenbait adierazpen (edukiari buruzko azaleko erreferentziaren bat eta interesdunak, horretarako ezarritako epean egintzaren eduki osoa ezagutzeko eta ezaguera hori jasorik geratu ahal izateko, zein lekutan azaldu beharko duen) besterik ez du egingo. Doktrina ez da bat etorri tresna berri honen izaera finkatzerakoan: PARADA VAZQUEZentzat (123) jakinarazpen-mota bat den bitartean, DORREGO DE CARLOS eta GUTIÉRREZ VICENek (124) jakinarazpen eta argitalpenaren izaera juridiko berbera esleitzearen aldeko apustua egin dute, eta VILLAR PALASik (125) argitalpenaren eta jakinarazpenaren

(119) Antzekorik ez zen aurreko Legean.

(120) Ikusi dugunez, 58.2. artikuluan.

(121) Jada ikusia dugun 33. artikulua baimentzen duen moduan.

(122) Lege zaharraren 46.2. artikulua bidea jarraituz.

(123) Aip. ob., o. 140.

(124) Aip. ob., o. 471.

(125) Aip. ob., o. 127.

arteko izaera hibridoa eman dio. Praktikan, prozedura administratiboan erabilia izan bada ere, hari buruzko araudian lehen aldiz agertu da oraingoan (126). Garbia da Konstituzio Espainiarraren 18. artikuluko esku bideak urratuak izan daitezken suposamenduetan organo administratiboak tresna hau erabili ahal izango duela, baina galdetu daiteke ondarezko eskubide edo interesak gorde ote dituen (127). Hauek ere, artikulua eskatu duen bezala, eskubide edo interes *legitimoak* direnez, ezin da esan suposamendu honetatik at geratuko direnik. Organoaren esku dago, kasuz kasu, tresna honek babesteko adinako eskubide edo interesak diren edo ez, beti ere arbitrariokeria ekidinez (128). Gai honekin bukatzeko, azken ohar bat egitea besterik ez zaigu geldituko: tresna honek babestuko dituen eskubide eta interesak ez dira prozeduran interesdun direnenak soilik, baizik eta hirugarrenenak ere bere itzalpean geratu dira, ez du horrelako salbuespenik egin eta.

Legeak jakinarazpen egokiari galdatu dizkion baldintzak aipatuak ditugu, Jarraian ikus dezagun zeintzuk ondorio erantsiko zaizkion jakinarazpen egintza horri baldintza guzti horiek egoki bete baditu eta nola erantzun duen ordenamenduak eskaturikoari menik egin ez dion jakinarazpenaren edo jakinarazpenik ezaren aurrean.

II.3. Ondorioak

Esana dugu, jakinarazpena bera, sorrarazi duen egintza administratiboaren eraginkortasun-baldintza dela. Dena den, ñabardura bat egin beharra dago puntu honetan. Egintzaren eraginkortasuna benetan baldintzatzen duena (129) interesdunak bere edukia ezagutzea da (130). Beraz, jakinarazpenak araudiak eskaturiko guztia bete badu, jakinaraziak lehenengo egintza horren edukia ezagutuko duelarik, egintza hori eraginkor egingo da jakinarazpen-datatik aurrera. Une horretatik hasi eta izango ditu ondorioak jakinaraziriko egintzak, partikularrak obligatuko dituelarik. Bestalde, eta jakinarazpenak egintzaren edukiaz gain, egintza hori aurkatzeko dauden bideak ere ezagutaraziko dizkiolarik, jakinarazpen hori gertatutakoan

(126) Zuzenbidearen beste arloren batetan ezaguna zen arren. Zuzenbide Zibilaren adarrean, adibidez, Kode Zibilaren 54. artikuluan aurreikusiriko ezkontza sekretuaren figura hor dago.

(127) DORREGO DE CARLOS, aip. ob., o. 471.

(128) Artikulu hau ez dute guztiek begi onez ikusi. Pertsona mota bat beste baten gainetik jartzeko posibilitate irekia uzten duela eta. Klase politikoak bere buruarekiko babesa eratu ote duen edo. (VÁZQUEZ IRUZUBIETA, aip. ob., o. 200).

(129) Egintza hori jakinarazia izan behar den suposamenduetan.

(130) Ikus, besteak beste, Auzitegi Gorenaren 1989. azaroaren 6ko (Ar. 8170) eta 1993. apirilaren 23ko (Ar. 3128) Epaiak.

hasiko dira zenbatzen lehenengo egintza horren aurka tartera daitezken helegiteak (131).

Guzti horren ondorioz erator daiteke, orduan, jakinarazpen egokiaren ondorioz lehen *jakinaraziaz egintza ezagutzen duenaren presuntzioa* (132) izango dela. Presuntzio hori jokatzeko hasi orduko bihurtuko da eraginkor lehenengo egintza.

Dena den, aurretik egindako zenbait ñabarduraren harian eutsiz, gogora dezagun sistema hau administratuaren onuran pentsatuz eratua dela. Hori dela eta, egintza interesdunaren aurkakoa denean besterik ez du jakinarazpenak egintza ezagutzen denaren presuntzioa sortuko, eta ondorioz, egintza horren eraginkortasunik baldintzatuko (133). Lehen egintza administratuaren aldekoa denean egintza ezagutzen denaren presuntzioa berehalakoa da eta ez da jakinarazpenaren esku geratuko.

Zein da araudiaren araberrako ez den jakinarazpenak edo jakinarazpen ezak sortzen duen egoera juridikoa? Bi suposamenduak bereizirik uki ditzagun.

II.3.1. Jakinarazpenik eza

Ez aurreko Legean ez oraingoan ez da espreski aipatu suposamendu hau: jakinarazpen akasdunen erreferentzia besterik ezin aurkitu bietan ere (134).

Ordenamendu juridikoak egintza administratiboaren eraginkortasuna jakinaraziaz izatearen menpean utzi duenean, eragin gabeziak ukitua geratuko da egintza hori jakinarazpenik ez bada egin, printzipio moduan, behintzat. Ondoren, Administrazioak egintza eraginkortzat duen beste egintza bat emango balu, jakinarazi gabe geratuko litzatekeen interesdunak (beraz, egintzaren ezagutzarik ez duenak) egitate hori alegatu ahal izango luke. Orduan, organo eskudunak, egin gabeko jakinarazpen horretan oinarrituriko jarduera guztiak baliogabetu beharko litzuzke eta jakinarazpen egokia agindu (egintzaren legezkotasunarekiko ebazpena eskatu ez badu interesdunak) (135).

(131) Zenbaketa nola egin behar den azaldua dugu jada.

(132) Ez doktrina administratiboak, ez legediak, ondorio hau azpimarratu ez duten arren LÓPEZ MERINOK Auzitegi Gorenaren Epaietan aurkitua du (aip. ob., o. 298).

(133) GARCÍA DE ENTERRIA eta FERNANDEZ RODRÍGUEZ, Curso..., Tomo I, aip. ob., o. 559.

(134) Edonola ere, Auzitegi Gorenak jakinarazpenik eza izapideak baliogabetuko dituen akatsa dela esan eta prozedura akats hori egin zen unera arte birjartzera behartu izan du [Ikus 1989. Otsailaren 27ko (Ar. 1436) eta 1992. irailaren 29ko (Ar. 7377) Epaiak]. Auzitegiaren ustetan, akats hori prozeduraren ordena publikoko arazoa da, ofizioz ere nabari daitekeena, ebazterakoan lehentasuna duena eta arazo berriaren kalifikazioa ekiditen duena [1993. uztailaren 12ko Epaiak (Ar. 6221)].

(135) MADRIGAL GARCÍA, aip. ob., o. 255.

Argi dago suposamendu honetan ez gaudela jakinarazpen egintzaren akatsaren aurrean, baizik eta egintza horren ez izate edo inexistentzia besterik ez dela. Ez den egintza baten aurrean ezin da ez baliozkotasun ez eraginkortasun-arazorik planteatu. Ez du izaterik, eta kito.

Zein ondorio dakar horrek? Ba, jakinarazpenik ezak interesdunak haren bidez ezagutu behar zuen egintza ezagutzen ez duenaren presuntzioa dakar. Presuntzio hori *iuris tantum* izango da, dena den (136). Horrek zera esan nahi du: interesdunak espresu ala tazituki ezaguera hori baduela deklaratu badu, jakinarazpen ezak sorturiko presuntzioa ezabatu egingo da eta lehen egintzak eraginkortasunik har dezake.

Dena den, bi "ezaguera-maila" deitu ditzakegunak bereiziko ditugu deklarazio horietan: edukia ezagutzea eta tarteratu daitezken helegiteak ezagutzea. Bi maila horiek besarkatzen badira deklarazioan, egintzaren eraginkortasuna erabatekoa izango da. Baina interesdunak (bere deklarazio espresu edo tazitoaren arabera) edukia besterik ez badu ezagutzen, egintzaren eraginkortasuna mugatua geratuko da. Beste hitz batzutan, helegiteko epeak ez dira igarotzen hasiko.

II.3.2. Jakinarazpen akasduna

Berriro gogora ekar dezagun jakinarazpena aurreko egintzarengandik bereiziriko egintza independentea dugula.

Arau orokor moduan, jakinarazpen akasdunak ondoriorik ezin du sortu. eta beraz, jakinarazirik egintzak ere ezin izango ditu sortu interesdunaren aurka (ez baitago ezaguera presuntziorik): azken honi ez zaio betetzeko obligaziorik sortuko eta egintza aurkatzeko dituen epeak ere ez dira igarotzen hasiko.

Esana dugu jada jakinarazpena izaera formaleko egintza dela. Horrek badu ondoriorik egintza honen balio gabezia aztertzeke garaian. Izan ere, 63.2. artikulua formazko akatsari deuseztagarritasuna sorrarazteko indarra besterik ez baitio eman (ezin du, beraz, deuseztasunik ekarri). Artikulu horri kasu egiten badiogu, jakinarazpenaren balio gabezia hori bi kausak ekarriko dute: alde batetik, bere xedea lortzeko ezinbesteko diren baldintza formalik ere ez izateak eta, bestetik, berriz, interesdunen defentsa gabezia ekarteak.

Jakina da deuseztagarritasun edo deuseztasun erlatiboaren ondorioak ez direla zuzenbide osozko deuseztasunarenak bezain gogorrak. Azken honek inolako konponbiderik onartzen ez duen bitartean, deuseztagarritasunak baimentzen ditu. Jakinarazpenaren balio gabeziak ere aurreikusiak ditu zenbait formula horretarako 58.3. artikuluan. Honen esanari begira jarririk, jakinarazpen akasduna ongitzeko bi bide aurkituko ditugu, biak ere oker

(136) LÓPEZ MERINO, aip. ob., o. 300.

jakinarazia izan denaren esku daudenak: bata, jakinaraziriko egintzaren edukia ezagutzea batera daramaten jarduerak egitea, eta bestea, dagokion helegitea tarteratzea. Aurreko Legearen 79.3. artikuluko "enigmatikoak" (137) antzeko aurreikuspenik bazuen (138), baina ezberdintasunen bat aurkituko dugu bien arteko konparaketa eginez gero. Lehen jakinarazpena ongitu ahal izateko interesdunaren horrekiko adierazpenak espresua izan behar zuen, orain nahikoa dirudi, berriz, adierazpen tazitu edo ustezko batek (izan ere, jakinaren gainean dagoela suposatzen duen jarduera nahikoa baita).

Ongitze-bide horiek ez badira erabili, gaizki jakinaraziriko egintza ez da irmotuko eta hura aurkatzeko posibilitateak mugagabeki hor jarraituko du, deusezgarritasunaren ondorioz.

Zein jarrera hartu behar du, beraz, jakinarazpen akasduna egin zaion interesdunak?

Akats horretaz konturaturik, aukerak baditu aurrean.

Ezer egin gabe gera daiteke, hasteko. Administrazioak aurrerago oker jakinaraziriko egintzaren eraginkortasuna benetakotzat ematen duen beste egintza bat sortzea gertatuko balitz, partikular interesdunak jakinarazpenaren akatsa alegatzerik izango luke eta jakinarazpen akasdunaren ondoren izandako jarduera oro balio gabetu eta jakinarazpen berria egitea agindu beharko luke organo eskudunak (interesdunak gaizki jakinaraziriko egintzaren legezketasunari buruzko iritzirik eskatu ezean behintzat) (139). Ikus daitekeenez, jakinarazpenik egon ez denean eskaintzen zaion aukeraren antzekoa da hau.

Dagokion helegitea tartera dezake, bigarren aukera bezala. Edozein helegite tarteratzeak ez du jakinarazpenik baliozkotzen. Suposamendu horretan egokia dena eta beharrezko denbora eta forma baldintzetan tarteratuz gero lortuko da soilik ondorio hori (140).

Administrazioaren aurrean egintzaren edukia ezagutu izana berekin daraman jardueraren bat egitea izango du hirugarren aukera. Dena den, doktrinak bere zalantzak baditu posibilitate honen aurrean. Izan ere, ez dago argi edozein suposamendutan baliozkotu ote dezaken (141).

(137) Horrela zeritzon VIVANCOSek ("El recurso de reposición y la notificación defectuosa en la sentencia de 11 de octubre de 1963", *Revista de Administración Pública*, zk. 47, 1965, o. 178).

(138) Aurreikuspen horiek kontutan izanik, Jurisprudenzian jakinarazpen akasduna ongitzea onartu duen ebazpenik aurki dezakegu [Ikus, adibide gisa, 1991. otsailaren 18ko (Ar. 1485) eta 1993. Martxoaren 1eko (Ar. 1566) Epaiak].

(139) MADRIGAL GARCÍA, aip. ob., o. 253.

(140) GONZÁLEZ PÉREZ eta GONZÁLEZ NAVARRO, aip. ob., o. 732.

(141) GONZÁLEZ PÉREZ eta GONZÁLEZ NAVARRO-k baliozkotzeko posibilitate honen interpretazioak erabat murriztailea izan behar duela adierazi dute. Beraien ustetan interesduna egintza soberan ezagutzen duela agerikoa izan ezik ez da aplikatu ahal izango (kasu horretan bere jarrera pasiboak ziurtasun eza juridikoa iraurarazi besterik ez baitu egin, onuste-printzipioa urratuz).

GARCÍA DE ENTERRIA eta FERNANDEZ RODRIGUEZ-ek (142) legegileak aurreikuspen hau planteatzerako garaian izan zitzakeen zioak aztertu dituzte: Auzitegi Konstituzionalak, bide kontentzioso-administratiboan auziperatu edo demandatuak pertsonalki epaitu ez izana zela eta, sartutako ñabardurak hemen zuzen zuzenean prozedura administratiboarekiko aplikatu dira, inolako egokitze lanik egin gabe. Baina hori, bide bien arteko ezberdintasunak kontutan izanik (143), onartezintzat jo dute. Interesdunak ezagutu dezake egintzaren edukia zein den, baina ez dauka haren aurkako helegite egokiak zeintzuk diren zertan jakinik, eta hauen berri eman bitartean ezin da igaro, autore horiek ustez, aurkatzeko eperik interesdunaren kaltetan.

GARRIDO FALLA eta FERNANDEZ PASTRANA-k (144) ere ez diote logikarik aurkitu legearen irtenbide horri. Jakinarazpenek helegite egokien adierazpena edukitzea galdatzean, babestu nahi dena defentsa-bermea dela gogorarazi dute. Interesdunak egintzaren edukia ezagutzeak helegite egokiak ezagutzea ere berekin daramala baieztatzen duen interpretazioarekin helegite-adierazpena ez egitea jakinarazpen-egintza baliogabetzen ez duten irregulartasunen artean kokatzen da, interesdunaren defentsa gabezia erator dezakeela ahantziz. Hori dela eta, beste interpretazio bat proposatu dute: interesdunak egintzaren edukia ezaguna duela erakusten duten jarduerak egin dituenean, egintzaren testu osoa jakinarazia izan dela uste izango da, baina helegite egokiaren adierazpenaren akatsa ez da ongituko interesdunak helegite egoki hori tarteratu arte. Jakinarazpenaren ondorioak bereizi dituzte horretarako: alde batetik, jakinarazirik egintzaren *eraginkortasun juridiko-materiala*, eta bestetik, *irmotasuna (helegiteen onartezintasuna dakarren eraginkortasuna*, edukiko genituzke. Hau da, interesdunak, Lege berriaren arabera, egintzaren edukia bete egin beharko du ongi jakinarazia izan den unetik edo egintzaren edukia ezagutzen duela erakusten duten jardueran egin dituenetik (145), baina ezaguera horrek ez darama, nahita nahiez, berekin helegite egokien ezaguera eta jakinarazpenak haien adierazpenik ez duenean, zegokion helegiterik ez badu tarteratzen ezin da interesdunaren defentsarekiko hainbesteko garrantzia duen akatsik ongitu (146).

Laugarren, eta azken aukera, *Administrazioari jakinarazpen berria egiteko eskaria luzatzea* izango du interesdunak. Aurreko Legearen 79.4. artikulua espreski aurreikusia zuen aukera hau egungo Legearen 58. artikuluan

(142) Curso..., aip. ob., Tomo I, o. 557.

(143) Bide administratiboan abokaturik gabe ihardun dezake partikularrak, kontentzioso-administratiboan ez ordea.

(144) Aip. ob., o. 127-128.

(145) Egintzak eraginkortasun juridiko-materiala izango du beraz.

(146) Ez diote irmotasuna dakarren eraginkortasunik ematen.

ezin topatu. Halere, behar bezalako jakinarazpena eskatzea orain ere posible dirudi eta eskari horri erantzun egokia eman bitartean ez da helegiteko eperik zenbatzen hasiko (147).

Interpretazio hau ez da ahobatekoa doktrinan, halere. VILLAR PALASI-k (148) 58.3. artikulutik eratorri du eskari hori aurkezteak interesdunak egintzaren edukia ezagutzea inplikatzeko duela eta aurkezpen hori egin den une beretik zenbatzen hasiko direla egintza aurkatzeko dauden epeak. Dena den, autore berak aitortu du planteamendu horrek defentsa gabezia egoerak ekar ditzakeela. Beraz, egokiagoa dirudi aurretik adieraziriko interpretazioarekin geratzea.

Eta aukera honi buruzko irazkinarekin amaitzeko, aurreko 79.4. artikuluko horrek jakinarazpen berria egitea zenbait suposamentutan eskatzeko ezarria zuen epea ezin da aipatu gabe utzi. Sei hilabetetako epea zuen interesdunak jakinarazpen egokiaren eskaria aurkatzeko jakinarazpenak testu osoa barnetua izan eta akatsa bestelako baldintzaren bat ez betetzetik bazetorren. Ezer egin gabe, epe hori igaro zedin utziz gero, jakinarazpena baliozkotu egingo zen (149). Antzeko aurreikuspenen bat sartzeko proposamenik izan zen Lege berriaren prestakuntza garaian, baina azkenean guztiak porrot egin zuten (150). Txalogarritzat kalifikatua izan da desagertzen hori, Administrazioaren dorpezia edo errakuntza interesdunari protesta formalaren zama ezarri ezabaturik geratu ezin zelakoan (151).

Nahiz eta, zenbaiten ustetan, araupen berria jakinarazpenaren ondorioen gai honetan Administrazioaren ahalmenak lotzen eta administratuen egoera indartzen saiatu den (152), aurretik esan duguna esan ondoren zalantzan jarri daiteke baieztapen borobil hori.

III. Amaiera

Gai honetan aurreko Legearen eta oraingoaren artean egin dugun konparaketa honen ondoren, zenbait aldakuntza sumatu ahal izan ditugu. Horietariko batzuk, idazkera-aldaketa soilak izan badira ere, ez dira falta mamiarekikoak ere.

(147) GARCÍA DE ENTERRIA eta FERNANDEZ RODRÍGUEZ, *Curso...*, aip. ob., Tomo I, o. 558.

(148) Aip. ob., o. 126.

(149) Soberan egon badaiteke ere, azken ohar bat egin gabe ez dugu geratu nahi. Jakinarazpena berriro egiteko eskariak (protesta formalak deituak) testu osoarekin izandako kasuetan besterik ez zuen epe hori. Gainerantzeko kasuetan, eta Legeak espreski aurreikusi ez arren, doktrinak posibilitate bera bidezkotzat hartzen zuen, baina inolako eperen mugarik gabe (GARCÍA DE ENTERRIA eta FERNANDEZ RODRÍGUEZ, *Curso de Derecho Administrativo*, Tomo I, Edit. Civitas, Madrid, 5. ediz, 1989, o. 566).

(150) Lege-proiektuan sei hilabeteko epe hori hilabetera murriztu zen, halere. Ondoren izandako gorabeherak MARTIN REBOLLO-k adieraziko dizkigu (aip. ob., o. 186-187).

(151) MADRIGAL GARCÍA, aip. ob., o. 254-255.

(152) DORREGO DE CARLOS eta GUTIÉRREZ VICEN, aip. ob., o. 467.

Nolabaiteko laburpen-eskema batetan azalduko ditugu nagusienak edo:

* Ikuspegi sistematikoa kontutan izanik, jakinarazpen eta argitalpenari trataera bateratua eman zaie.

* Elementu subjektiboei helduz:

— subjektu aktiboa dela eta, egintza eman duen organoak jakinarazpenak zuzenean egin behar diren aurreikuspen orokorrik oraingoan ez egin izanari, Legeak ezarritako Administrazio Publikoen arteko lankidetzeta eta laguntza aktiboaren obligazioa gehitu behar zaio

— subjektu pasiboaren eremuan, alde aldetik, zabaldua izan da interesdunaren kontzeptua eta prozedura izapidatzen ari denaren berri bertara deitu gabeko interesdunei emateko agindua ezarri da, eta bestetik, interesduna bizilekuan ez badago bertan dagoen edonori, bere nortasuna jasotze hutsarekin (bestelako daturik gabe), entregatzeko ahalbidea irekirik geratu da.

* Elementu objektiboei dagokienean, ebazpenez gain izapidetako egintzak ere jakinaraziak izan beharko dute zenbait kasutan, espreski aurreikusi denez. Jakinarazpenaren mezuarekiko aldaketak ez dira handiak izan, motibazioaren araupenak jasan duen berreraiketak eragin dituenak kenduz gero.

* Elementu zirkunstantzialak aztertzean, ondoko aurreikuspen hauek izango ditugu esanguratsuenak:

— Jakinarazpena egiteko epeaz, garrantzia martxan jartzeari ematea, eta ez interesduna jakinaren gainean geratzeari,

— Jakinarazpen lekuaz, interesdunak seinalaturikoan ezinezkoa balitz, edozein lekutan egiteko posibilitatea

— eta, bideei buruz, komunikabideetan izandako aurrerapenei atea irekia uzteaz gain, hartzaile gaiak hartzeari uko eginez gero, gertaera espedientean jasoarazi eta prozedurak aurrera jarraitzea aurreikusi dela kontutan izanik, bide osagarriak ere agertu dira Legearen testuan, eta hauen artean, "jakinarazpen argitalpen" deitu daiteken tresna.

* Jakinarazpenen ondorioen arloa harturik, jakinarazpena ongi izateko badirudi adierazpen tazitu edo ustezko bat nahikoa izango dela, eta horrez gain, zenbait kasutan jakinarazpen egokia eskatzeko zegoen epea desagertu egin da.

Aldaketa horien benetako esanahia norainokoa den esatea, ordea, une honetan oraindik zaila gertatzen da. Legearen aginduak hein handi batean Administrazioaren ardura zenbaterainokoa denaren funtzioan geratuko dira eta praktikak erakutsiko digu haren erabilpen eta baloraketak zein joku emango dituen. Horregatik, MARTIN REBOLLO-k (153) Administrazioaren zentzumenari, Legeak aurreikusia jakinarazpenaren benetako xedeak kontutan izanik aplikatu dezan, luzaturiko deia gainerantzeko operadore juridikoei ere zabaltea komenigarria dela uste dugu.